

# ttipi-ttapa

## DUINTASUNAREN ALDE

Haur eskolek urteak daramatzate lan baldintza duinak aldarrikatzen. Kristina Goñi Baztango Haur Eskolako zuzendariaren hitzetan, ordea, «aldarrikapenekin deus guti» lortu dute eta mobilizazioekin hasi dira. «0-3 zikloan duintasuna bermatzeko negoziatzeko mahaia lortzea» dute helburu eta bide horretan, «gure borrokan parte hartzeko» deia egin die herritarrei. / 10



## Lesakan eta Senperen lasterketak

Beti Gaztek antolatuta mendi lasterketa egingen dute igandean eta SPUCen eskutik lau aukera asteburuan. / 40-43

### SINADURAK



**Miguel Mari Urrutiak**  
erremontea utzi eta Mexikora joan zela hamar urte / 8



**Ainara Unanua Adi**  
zakurrarekin 'Agility' kirola egiten duen gartzaindarra / 32



**Jose Cazaubon Sarako**  
kultura eta hizkuntza politika arduraduna / 39



ZOZKETA / 52



# BERA LESACA

## Agenda 2022

MARTXOA

[www.berakoagenda.eu](http://www.berakoagenda.eu)  
[www.lesaka.eu](http://www.lesaka.eu)

**LESAKAKO  
UDALA**

<b>12</b>	LARUNBATA	<b>12</b>	MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA	<b>14</b>	ASTELEHENA	
<p><b>MARGO ERAKUSKETA</b> <b>OAIA PERUARENA</b></p> <p>Larunbat eta igandeetan <b>16:00-20:00</b> Ikastolako areto nagusian <b>Antolatzailea</b> Labiaga ikastola</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>BERA</b></p>		<p><b>10</b></p>		<p><b>ERREZITALDIA</b> <b>ARKANBELE KANTAK</b> (MIKEL TABERNA, JOSEBA IRAZOKI ETA OIER FUENTES)</p> <p>19:00 Kultur Etxean</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>BERA</b></p>	<p><b>18:00</b> Herriko etxeko plazan (eguraldi txarra eginez gero, Eztegara pilotalekuan) <b>Antolatzailea</b> Gure Txokoa elkarte eta Berako erraldoiak</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>BERA</b></p>	
<p><b>11</b></p>		<p><b>KONTZERTUA</b> <b>VULK</b></p> <p>ORTZIRALEA Katakua ostatuan</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>BERA</b></p>	<p><b>13</b></p>		<p><b>KIROLA</b> <b>LESAKAKO</b> <b>MENDI</b> <b>LASTERKETA</b></p> <p>IGANDEA</p> <p><b>Antolatzailea:</b> Beti-Gazte</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>LESAKA</b></p>	
<p><b>12</b></p>		<p><b>KULTURA</b> <b>IRTEERA</b> <b>XABIERRERA</b></p> <p>LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>LESAKA</b></p> <p><b>05:45</b> Fonda Mariatik autobusez <b>Antolatzailea</b> Beti-Gazte</p>	<p><b>15</b></p>		<p><b>EMANALDIA</b> <b>IPUIN</b> <b>KONTALARIA</b></p> <p>ASTEARTEA</p> <p>17:30 Lesakako Udal Liburutegia</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>LESAKA</b></p>	
<p><b>19</b></p>		<p><b>DANTZA</b> <b>HERRIKO DANTZARIEN</b> <b>EGUNA</b></p> <p>LARUNBATA</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>LESAKA</b></p> <p><b>Antolatzailea:</b> Tanturumairu Euskal Folklore Taldea</p>		<p><b>20</b></p>		<p><b>KULTURA</b> <b>ZINEMA</b> <b>HARRIONDOAN</b></p> <p>IGANDEA</p> <p>17:00 Harriondoa Kultur Etxea <b>Antolatzailea</b> Irain Eskola eta Tanturumairu ikastolako guraso elkarteak</p> <p style="background-color: #0056b3; color: white; padding: 2px; text-align: center;"><b>LESAKA</b></p>

Aurre-izenemate  
epea martxoaren  
7tik 11a arte.

**BERA**

640 07 45 06 whatsapp

**Parte hartzetik parte izatera**

948 63 00 09

info@jesusenbihotza.com





**NIRE TXANDA**

**KORO IRATZOKI ARBURUA**

## Gure dirua norat?

Arropa polit bat ikusi zuen Interneten, arras prezio onean gainera, eta erosi zuen. Bertze behin kiroleko zapatilak behar zituela eta, online sekulako hauta ikusi eta hartu zituen. Irakurteza maite du, eta liburuak saltzen dituzten bere gustuko plataformatik erosten ditu. Amazon aunitz erabiltzen du, denetarik baitago, prezio merke-merkeak dituelako eta erositakoa laster bidaltzen dutelako. Baina lehengo egunean, a kontxo! Presaka gauza batez behartu zenean, herriko dendara joan zen, eta denda aspaldixkoan hetsia zutela jakin zuen. Bertze behin kirol-dendara hurbildu eta hura ere, ezin aitzinera egin, eta hetsi zutela erran zioten. Gauza bertsua gertatu zitzaion herrian zapata batzuk erosi nahi izan zituen batean, hura ere hetsia... eta gisa horretan konturatu zen herriko denda aunitzek pittakapittaka, herritarrek abandonaturik, hetsi behar izan zutela. Eta honela, bere dirua nori ematen zion garrantzitsua dela konturatu zen: ez dela gauza bera bere dirua kanpora bidaltzea, edo herrian uztea. Eta nahiz eta prezioak karioxeagoak izan, eta nahiz eta hauta tikiagoa izan, bere dirua herrian uztea erabaki zuen.

**«DIRUA KANPORA BIDALTZEA EDO HERRIAN UZTEA EZ DA GAUZA BERA»**



**EZPALA**

**AITOR AROTZENA ALBIZU**

## Gure territorio libre bakarra

Euskaraz aritzeagatik kargu hartu dio emakumeak Iruñeko ospital batean. Eremu mistoan zirenez, berekin Lingua Navarrorum eta gaztelania, biak erabil zitzaizela erantzun dio, etxera bueltatuta euskara bakarrik eta Tuterara joanda gaztelania huts-hutsik. Ea bera gauza bera egiteko gai ote zen galdetu dio. Ez daki ulertu dion (espainolez egin arren).

## NABARMENTZEKOAK



**SAIOA JAURENA ELIZONDO**



**KRISTINA SARALEGI LEITZA**

17 urteko kirol ibilbide bikainaren ondotik, 33 urterekin errugbia uztea erabaki du Leitza bizi den Saioa Jaurena elizondoarrak. Hainbat arrazoirengatik hartu du erabakia.

Sorterrian eta Euskal Herri osoan ezaguna, otsailaren 25ean zendu zen Kristina Saralegi. Baserritar ekintzailea, langile nekazaria, askok nabarmendu dute askoren eredu izan eta izanen dela.

## ATZERA BEGIRA



2012-03-08 · TTPI-TTAPA · 560 zk.

## Nafarroako Herri Kirol Federazioa hizpide

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren 20. urteurrenaren harira, duela hamar urte Joxelu Retegi federazioko lehendakariarekin bildu zen TTPI-TTAPA. Nafarroan herri kirolak «nahiko osasuntsu» ikusten zituela aitortu zuen, «badira haurren taldeak eta berriak sortzen dira. Baina helduetan orain baino kirolari gehiago izan dira. Ez dugu altxaferorik botatzeko motiborik». Apustuez ere aritu zen: «ez ditut beharrezkoak ikusten, baina ez nago kontra. Jendeak gustura hartzen ditu, eta Nafarroan, aizkora adibidez, garai batean apustuei esker mantendu zen». Gaineratu zuenez, «aizkora izan da eta da kirol erregea, eta batez ere larri dagoena sega da». Etorkizunera begira, berriz, «herri kirolak plazetan ikusteko lanean segitzearen garrantzia» nabarmendu zuen.

**ttipi-ttapa**

**erran.eus**

**TOKIKOM**

### Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

### Zuzendaria

Aitor Arotzena  
**Erredakzioa**  
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larrebea  
**Publizitatea**  
Amaia Odrizola  
Arantza Agirre  
**Berriemakileak**  
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Aitzuri,  
Aranxa eta Iraia, Iruene Elizagoien,  
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Ebekeolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maitte, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Aranxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

### Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea  
**Kudeatzailea**  
Joxemanuel Irigoien  
**Administrazioa**  
Amaia Goia

### Lege Gordailua

NA-1324/85

### ISSN

1578-4673

### Tirada

6.000 ale

### Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreka Zerbitzuen Mankom., Zugarramurdiko Akelarre elkarteak

### 2022ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	42€
Leitza	33€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	98€
Amerika eta Australia	147€

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

**mecna**

**BAZTANGO EUSKARA**

**BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA**

**Malerrekako Mankomunitatea**



## KOLABORAZIOAK

MADDI ANE TXOPERENA IRIBARREN

**Berak ere...**

«Ederra zen bera ere». «Umeen zaintza bereganatu nahi zuen». «Berak gonbidatu zuen etxera lotara». Halako esaldiak ohikoak izaten dira inguruan eraso matxista edo sexu abusu bat gertatu ondotik –anitzetan, gainera, eraso xuxen nola gertatu den arrastorik izan gabe–. Zalantzan jarri ohi da emakumeak –alegia, eraso pairatu duenak– eraso hori jasotzeko moduko ekintzarik egin ote duen: galtza motzegia ote zuen, dantzatzeko modu sexyegia, umore txarregia; independenteegia ote zen, edo pentsatzen duena errateko ausartegia. «Ez, ez; ez naiz ari eraso justifikatzen», izan ohi da erantzuna horrelakoak erraten dituztenei horretan ari direla ohartaraziz gero. «Ez naiz ari eraso justifikatzen, baina, berak ere...».

Idea bat dago esaldi horren gibelean: modu batera edo bertzer, emakume horrek merezi zuela egin ziotena; berak duela erruaren parte bat, finean. Parte bat, edo osoa.

Emakumeek eta gizonen egindako ekintzak parekatzen dituzte halako esaldiek, halaber; kontuan hartu gabe baten eta berteen jokamoldeen abiapuntua guziz ezberdina dela. Orain dela aste batzuk izan genuen eztabaida, emakumeen arteko bazkari batean: berdina ote da gizonen batek emakume bat hiltzea edo emakume batek gizona? Bada, ez, ez da berdina;

## «EZ GENUKE GALDETU BEHARKO BERAK ERE ZER EGIN OTE DUEN...»

alde batetik, norabide batean gertatzen dena bertze norabidean ez delako ia gertatzen: 2003tik hona Euskal Herriko 113 gizonen 113 emakume hil dituzte. Urtean sei emakume, banaz bertze. Hildakoak, beti, emakumeak dira; eta, hiltzai-

leak, beti, gizonak. Zenbat dira bitarte horretan emakumeek hil dituzten gizonenak? Eta ekintza hain itzulezinetara joan gabe, zenbat dira emakumeek bortxatu dituzten gizonenak? Edo zenbat emakume dira hurrez abusatu dutenak? Erantzuna guzietan bera da: hagitx guti, edo bat ere ez.

Baina kontua ez dago datuetan bakarrik. Kontua da zer dagoen indarkeria mota horien guzien gibelean. Gizonen batek ez bailuke emakume bat hilko (edo bortxatuko, erasoko), ez baluke lehendik horretarako boteririk, pribilegiarik sentituko. Eta botere hori ekintza ttikienetatik hasten da: ostatu edo plaza batean espazio guzia okupatzeko eskubidea duzula pentsatzen –eta hori praktikan jartzen–; karrikatik pasatzen den emakume bati piropo bat botatzeko, eta, beraz, bere espazioa inbaditzeko eta hari buruzko iritzia emateko eskubidea duzula pentsatzen –eta hori praktikan jartzen–; emakumei buruzko mezu guttiesgarriak lasai ederrean erratzen –eta horiei irri egiten–; lan beragatik arrazoirik gabe soldata handiagoa kobratzen; gurasoen euren alabei bestera doazela kontuz ibiltzeko eta semei ongi pasatzeko erratzen...

Emakume baten aurkako eraso bat gertatzen denean, beraz, beharbada ez genuke galdetu beharko berak ere zer egin ote duen, baizik eta eraso egin duen gizon horrek, lehenago, bertze zenbat gauza egin ote dituen.



GABI GOIA IPARRAGIRRE

**Gerrarik ez!**

TTIPI-TTAPAK eskatzen didanean zer edo zer idatziko ote dudan zalantza izaten ditut, gaia erabakitzea kostatzen zait, ez dakit nondik hasi... Oraingoan ez da horrela izan, Ukrainan gertatzen ari zenak kezka, beldurra eta ezinegon puntu bat sortzen zidan barrenean eta gerraren itzala hurbil sentitzen nuen, gai honi buruzko gogoeta bat egiteko beharra sumatu dut.

Sinestezina bada ere, XXI. mendean eta Europaren erdian gerra batean gaude. Tankeak karraketan, misilak zeruan, fusilak banatzen gaztetxoei, alarmak gauean, jendea ihesian beraien etxeak utziz eta, okerrean, hildakoak han eta hemen. Nola gertatzen ari da hau gaur egun? Erdi Aroan biziko bagina bezala, agintari indartsu batek erabaki du bere ondokoa menderatu behar duela eta indarrez herrialde horren jabe egin behar duela. Jostetan ariko balitz bezala! Inguruko herrialdeko buruzagiak berriz, baten alde eta bertzearen alde, bakoitzaren interesaren arabera. Bertze hainbat ere sakelak betetzen, gatazkan ari direnei armak salduz. Eta herri xehea, sufritzen, bizitza osoko lanarekin eta sakrifizioarekin lortu duena egun batetik bertzer galtzeko puntuan dagoela ohartzu.

Mundu mailako pandemia batean murgildurik bi urte

## «INDARKERIA GAINDIEZINEZKO MARRA GORRIA IZAN DADILA»

daramatzagu, herrialdeetako osasun sistemak indartzeko milioiak sartuz, txerto eta tratamenduetan ikerketa bultzatuz, pertsonen ongizatea bilatzen eta elkar zaindu behar dugula barneratuz. Eta orain zer?

Pertsonak salbatzea lehentasuna baldin bada, nola ulertzen da gerra batean elkar hiltzeari ekitea? Niri ez zait burutan sartzen, ez dut ulertzen zentzugabekeria hau!

Bizi garen planeta hau konpartitu behar dugunez, eta bakoitzak gure interesak defendatu nahi ditugunez, lehen, orain eta beti izanen dira herrialdeen arteko istiluak, ezin ulertuak eta norgehiagokak. Baina, gatazka honetan edo bertze edozeinetan, istiluak konpontzeko indarkeriaren bidea hartzen bada, beti indartsuenak irabaziko du eta galtzaileak izanen dira. Indarkeriaren adierazlerik bortitzena gerra da, eta honek sufrimendua eta ondorio latzak dakartza bizitzen dutenei eta ondorengo belaunaldiei. Indarkeria erabili gabe gatazka bideratzeko moduak badaude, batzuk bertze gainetik jarri gabe. Historiak erakutsi digunarekin eta gizarteak izan beharko lukeen eskarmentuarekin nahiko tresna baditugu bide bakezaleagoak jarraitzeko eta denon arteko bizikidetzara urratsetan aitzinera egiteko.

Mundu hobea bat eraiki aldera, balio eta jarrera bakezaleak bultzatuz, eta biolentzia edo indarkeria gaindiezinezko marra gorria izan dadila gure egunerokoa.



## 11 GALDERA LABUR

MIREN ARIZTEGI AGERREBERE URROZKO GAZTEA

## «Liburu bat talde batekin komentatzea aberasgarria da»

### Nor dugu Miren Ariztegi?

Aldaketak eta aldi berean lasaitasuna behar dituen pertsona.

### Zein dira zure zaletasunak?

Mendirra joatea, igeri egitea eta leitzea.

### Zer ikasketa egin dituzu?

Biologia ikasi nuen Salamancan eta irakaslea naiz Txantrean.

### Malerekako euskarazko irakurle taldean zaude. Noiz sortu zen?

2021eko urri-azaro partean sortu zen. Gaztelaniazko taldea bazegoen, baina euskarazkoa falta zen, eta Marga Erdozain eta Miren Sein ibili ziren bazterrak mugitzen sortzeko.

### Zenbat lagun zarete taldean?

Nahiko berria denez, kopurua ez da hagitik handia oraindik, 15 bat izanen gara. Hala ere, aitzinekoan Amets Arzallus etorri zen eta jende pila bat

elkartu ginen. Gero eta gehiago izanen garela iduritzen zait.

### Nola funtzionatzen du?

Liburu bat aukeratu eta lote oso bat ekartzen dute liburutegira. Parte-hartzaileok liburu bana hartu eta hilabete pare bateko tartean leitzen dugu. Gero, data bat paratzen da talde osoa idazlearekin elkartu eta leitutakoa komentatzeko. Liburuak aukeratzeko baldintza nagusia euskaraz izatea da, eta idazlea guregana etortzeko dauden aukeren arabera. Marga eta Miren ibiltzen dira lan horretan. **Interesgarria da idazleen testigantza aditzea?**

Liburu talde batekin komentatzea berez aberasgarria da, bakoitzaren perspektiba eta interpretazioa ikusteko. Idazlea guregana etortzen bada, bere



asmoak zeintzuk ziren aditzen dugu eta zergatik eman nahi zion zentzu bat edo bertzea. Liburuan kontatutako istorioaz aparte, aunitzez gauza gehiago daude komentatzeko guk ez dakizkigunak, eta momentu horietan enteratzen gara.

### Garrantzitsuak dira horrelako ekimenak herri ttikietan?

Herri ttikietan aukerak murrizten dira eta proposamen guziak dira ongietorriak. Aukerak zenbat eta zabalagoak, orduan eta errazago garatuko ditu bakoitzak

bere zaletasunak eta gusturago sentituko da herrian.

### Libururik gomendatu nahi duzu?

Hoberena izaten da pertsonaren arabera gomendatzea, baina ni markatu nautenak Herman Hesserren *Demian* eta Jorge Egocheagaren *Quizás vivir sea esto* izan dira.

### Zure asmoak epe motzera?

Duten errutinaz eta lanaz disfrutatzea eta ikastea.

### Eta epe luzera?

Denbora luze batez mundu osotik bidaiatzea.



# Merkealdia

## azken egunak

1951tik  
*Casa Cambra*  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

*Albornozak*

*Mantelak*

*Kuxinak*

*Edredoi nordikoak*

*Ohe estalkiak*

*Maindireak*

*Toailak*

*Edredoi-azal nordikoak*



## BOTA BERTSOA

**ADRIAN ARRUTI BERNADET**BAZTAN-BIDASOKO XXXIV. BERTSOPAPER LEHIAKETAN,  
D MAILAN, AIPAMEN BEREZIA**Pantailaren bestaldean****–Alkoholiko bati jarriak–**

Doinua: Mikel Urdangarinen 'Kideari'



1. Mantxako leku batean,  
izenik ez dut oroitzen,  
ezer hoberik ezean  
kapare zaharra heroi zen.  
Zoritxarrean eroritako,  
Dultzineak ihes egindako,  
On Kixotea izaki,  
zu beti gertu erasorako  
haize errota bihurtutako  
ardo botila huts bati.

2. Bataila galdu ondotik  
negar dagi begi biez  
berriro egin baitio  
duintasunari ihes.  
Sekula eza eta inoiza  
bereiztearen marra bikoitza  
sufritzen duzu sobera!  
Denbora nola da hain zikoitza?  
Abstinenzian egun bakoitza  
zuzetatz hilabete da!

3. Urte betean, zu hamar  
urte zahartu ondoren,  
ez dakizu ongi nola  
urte bete igaro den.  
Ezin baduzu zintzurra blaitu,  
zure bizitzak zentzu bat baitu;  
deus gabe uzten zaitu zu.  
Bakardadeak zahartu zaitu  
nahiz bizitza ez zaizun amaitu  
zuk amore eman duzu.

4. 'Cirque du Soleil'en artistak  
izaten dira nagusi  
baina zu bezalakorik  
ez dut sekula ikusi.  
Jartzen duzu oin bat esperantzan  
eta bestea dudan, zalantzan...  
Bizi baitzara ezbaian.  
Funanbulisten gisara dantzan  
abstinenzien sokan balantzan;  
aldiro erori nahian.

5. Eta erori ondoko  
goizak orduak batzean  
bizilagunek topatzen  
zaituzte eskaratzean.  
etxera bueltan 'in itinere'  
gorpu istripu bat alafede...  
Edateko zer bertute!  
Zu beti prestu, zu beti trebe  
zerorren ama saltzeko ere  
baxoerdi baten truke.

6. Humphrey Bogart bilakatu  
asmotan ari zarela  
ginebra duzu eskutan  
merkea bezain epela.  
Horma eskatzen duzu zuk eta  
besteok jotzen dugu pareta  
zerorrek baino gehiago.  
Edalontzia erdi beteta  
ikusten duzun arren tarteka  
beti erdi hutsa dago.

7. Burua garai onetan  
eta Casablancan oinak  
Parisen geratu dira  
zakurrak eta zikoinak.  
Hegazkin hura jada joan zen  
ordea zu ez zara ohartzen...  
Hegan egiten baituzu.  
Beraz has zaitetz norantza jartzen  
ez baduzu zuk garaiz lur hartzen...  
Lurrak hartuko zaitu zu.

8. Pelikula klasikoan  
melodramako aktore  
baina Mr. Hyde oro zen  
behinola Jekyll doktore.  
Rola sinetsi duzunez gartsu  
Stanislavski metodoak zu  
irensten zaitu gauean.  
Papera behingoz utzi ezazu  
zure bizitza zain baitaukazu  
pantailaren bestaldean.

## HEMEROTEKA



«Nire bizia Amaiurren egin dut. Emagina naiz, gazteluak ez du deus ikustekorik nire lanarekin. Bertzalde, egia da El Salvadorren ibili nintzela, eta, behar bada, Amaiurren ez banintz, GKEen giroan ibiliko nintzateke. El Salvadorren izan nintzen 90eko hamarkadaren hasieran, sei hilabetez. Mundu horrek erakartzen ninduen. Kanpoko herrialderen batean laguntzeak, erran nahi dut. Erizaintza ikasten ari nintzela, azken urteko praktikak egiten ari nintzela Iruñeko ospitalean, mediku bat ezagutu nuen. Pello Goiatxe zen, Mugarik Gabeko Medikuetakoa (...). Hogei urte izanen nituen nik, eta buruan sartu zitzaidan: 'Nik ere egin behar dut horrelako zerbait!'. Pelloren lagun egin nintzen eta, bera medio, Askapenarekin kontaktatu nuen (...). Askapenatik garbi utzi zidaten ideia bat: 'Ez duzu han inoren bizia salbatzeko lanik egin behar. Ez zara ezinbertzekoa, eta ez duzu ezinbertzekoa izan behar. Haiei ekarpenik egitekotan, gero beraiek beren kabuz zuk markatutako bidean ibili ahal izateko era izan behar duzure ekarpenak'».

**ISABEL ALEMAN I**  
AMAIURKO ALKATEA  
ARGIA. 2022.02.27



# Zaindu maite duzun hori...

## Zein da zuzena?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### \*'Bilera erabakiorra' ala 'bilera erabakigarria'?

-kor atzizkiak 'joera, erraztasuna' adierazten du eta beraren ezkerretara doan izena beti subjektu jasailea da, hau da, ekintza jasaten duena, ez eragilea.

- Eguraldi aldakor: eguraldia erraz aldatzen da.
- Partikula higikor: partikularra erraz higitzen da.
- Edalontzi hauskor: erraz hausten dena.
- Animalia hilkor: erraz hiltzen dena.

Hortaz, -kor atzizkia ez da egokia eragile modura erabiltzeko. Horiei -garri atzizkia edo -tzaile dagokie. Ikusi hemen adibide batzuk:

- \*bilera erabakior > bilera erabakigarri
- \*substantzia hilkor > substantzia hilgarri
- \*giro erasokor > giro erasotzaile
- \*erabaki onurakor > erabaki onuragarri

Hori kontuan harturik, bistakoak dira oposizioak:

- azalpen ulergarria / pertsona ulerkorra
- gezur sinesgarria / jende sineskorra
- pozo hilgarria / izaki hilkorra

# Nola erran



## Haur eta ume

Haur eta ume ez dira beti sinonimo. Euskaltzaindiaren arabera, «umek esparru semantiko zabalagoa du, giza haurrez gain animalia jaioberriak ere izendatzen baititu».

Hortaz, giza haurrak ere ume dira, baina ume guztiak ez dira haurrak; *haurra* giza umea baino ez da.

- Etxe aurrean dago atautxi, etxeko haur/ ume txikiekin.
- Hamabi hilabetetik gora behar ditu zeri emeak umeak (\**haurrak*) hazteko.
- Ni ume (= haur) koskorra nintzela...

## Osatu bikoteak

Zurrupea	Aienatu
Zarpail	Hurrupea
Uxatu	Urgun
Uzkaldu	Balaku
Maingu	Lotu
Losintxa	Zarpatsu

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

## «Lasaitasun bila Euskal Herrira bueltatuko nintzateke»

MIGUEL MARI URRUTIA ESKUDERO ERREMONTISTA PROFESIONAL OHIA

Erremontean momentuko atzelaririk onena izan zenak martxoan hamar urte beteko ditu erremontea utzi eta Mexikora bizitzera joan zenetik. Orain dela hamarkada bateko oroitzapenez, gaur egungo martxaz eta etorkizuneko ilusioez aritu da TTIPI-TTAPAREKIN

**G. PIKABEA** | SALDIAS-ERATSUN

Frontoi artean hazi zen, Eratsunen lehenbizi eta Saldiasen gero. Bi herri horietan eman zituen Miguel Mari Urrutia Eskudero (Eratsun-Saldias, 1983) lehenbiziko pilota kolpeak. Bere zaletasunak eta abilitadeak erremonte profesionalerako atea ireki zion eta hala eman zituen bederatzita urte erremonte profesionalen. Momentuko atzelaririk onena izatera ailegatu zen, baina duela hamar urte, oso bestelako bidea hartu zuen. Euskal Herria utzi eta Mexikora joan zen bizitzera, erremontea utzi, eta emaztearen familiak Mexikon duen zapata-denden negozioan lan egitera. «Aldaketa handia» izan zela aitortu du, baita hasierako hilabeteak gogorrak izan zirela ere, baina ez da damutu hartutako erabakiaz eta sorterritik urrutia, Mexiko Hirian, osatu du habia. Martxoaren 4an bete ditu hamar urte Mexikon eta handik, esker onez eta nahi denerako prest, mintzatu da TTIPI-TTAPAREKIN.

**Nolako oroitzapenak dituzu erremontean aritu zinen urte haietaz?**

Oso politak. Zorte handia izan nuen gustukoa nuen kirola egitetik bizitzeko aukera izan nuelako. Urte asko pasatu dira geroztik, baina hasiera hartan frontoiko giroaren falta sumatzen nuen, lagunekin frontoian egotea, jokatzeko sentitzen nuen adrenalina... Egia esan, oraindik ere, tarteka, telebistan

pilota partidaren bat ikusten dudanean, orduko momentu eder haietaz oroitzen naiz.

**Erabakia hartzea zaila izan zen?**

Bai eta ez. Erremontearen egoera okertzen hasia zen, gero eta gutxiago irabazten hasiak ginen eta nik hilabetero konplitu beharreko konpromisoak nituen. Momentu hartan, Mexikon bizi den aitagarrebak, Patxi Etxenike gartzaindarrak, nahi nuen Mexikora joateko gonbita egin zidan eta azkenean, erremontea gero eta okerragoa joan zela eta hura hasiera baino ez zela ikusita, Mexikora joatea erabaki genuen. Eta asmatu genuen.

**Aldaketa handia izan zen?**

Bai, hagitz handia. Hiriburuak eta inguruak kasik 25 milioi biztanle ditu. Saldiaстик Iruñera joatea aldaketa izan zen, ba imajinatu Mexikora etortzea zer izan zen! Jendea pilaka karrikan, trafiko handia, soinua,

bozinak, kutsadura handia, arriskuagatik kanpoan erne ibili beharra... Hor [Euskal Herrian] edozein ordutan ibiltzen ahal zara kanpoan, atzera begiratu gabe, baina hemen erne ibili behar da. Horrez gain, trafikoa ikaragarria da hemen, eta hasiera hartan horrekestres handia sortzen zidan. Hemen-go kutsadura ere handia da. Goizetan jaiki eta ez da ikusten zerua urdin. Dena grisa da. Ohitu arte, begiak gorrituak izaten nituen, mukiak kendu eta erdi beltz-marroiak, zintzurra hartua... Hemengo jendearen puntualtasun faltak ere asko haserrarazten ninduen... Aitagarrebaren zapata-dendetan hasi nintzen lanean, eta jendea hitzorduetara ordu bat eta ordu bat erdi beranduago agertzen zen. Horrek asko estresatzen ninduen, baina gero neurria hartu nion. Jendearen puntualtasun faltagatik eztabaida asko

izan ditut [irriz]. Hortaz aparte, hemen denek *licenciado* eta *señor* deitzeak atentzioa ematen zidan. Nik ez nuen lizentziaturarik estudiatu!

**Familia eta lagunak utzita joatea gogorra egin zitzaizun?**

Bai, oso gogorra izan zen familia guztia hemen uztea: bi anaiak, ama, atta, lehengusuak, lagunak... Batez ere, familia. Askotan juntatzen ginen, astebururo elkarrekin izaten ginen, eta astez, nahiz eta ni Iruñean bizi, harreman handia genuen. Pilotaren falta ere sumatzen nuen.

**Baina jarri zinen...**

Lehenbiziko zortzi hilabeteetan ez nintzen jarri, kosta zitzaidan. Anabel andreak Iruñera eta erremontea, lehengo bizitzara bueltatuko ginela esaten zidan, eta nik ezetz. Gutxienez urte batez Mexikon egonen ginela hitz eman nion berari eta neure buruari, eta urtea pasatu arte hemen egon behar genuela esan nion. Hasierako hilabete haiek lanetik etxera eta etxetik lanera pasatu nituen, huraxe bihurtu zen nire errutina, beste bizimodurik gabe. Baina urtea bukatzeko lau hilabete falta zirela, palan ibiltzen ziren batzuk ezagutu nituen, Peio Txikuri, atta Zigakoa zuen Patxi Mendiburu eta beraiekin, ostegunero, hemengo klub batean palaz jokatzeko hasi nintzen. Palan ibili ginen lehenbiziko egunean, klubeko jatetxean, Baztango jende asko ikusi nuen. Ostegunero horrat joaten hasi nintzen eta egoerari buelta eman nion. Nire inguruko jendea ikusiz, haiekin bazkalduz, musean ibiliz... Nire girora hurbiltzen hasi nintzen eta gero eta komodoago sentitu nintzen.

**Sorterrira etortzen zara?**

Familiarekin udaro hilabete baterako joaten gara Iruñera, urte batean sanferminetarako, eta hurrengo urtean sanferminak eta gero. Urri aldera, berriz, posible badut, bakarrik Saldiasera eta Eratsunera joaten naiz, hamar-hamabi egunetarako. Ehiza denboraldia aprobetxatuz, herrian gustura egoten naiz attarekin, lagunekin, txabolan



Miguel Mari Urrutia, Anabel emaztearekin eta Mikel, Julien eta Nerea seme-alabekin.



otorduak eginez... Hemen ehi-  
zan aritzeko bizpahiru ordu  
egin behar dira kotxean, eta  
nire afizioa ez da hainbestekoa.  
**Zapata-dendan lanean segitzen  
duzu?**

Bai. Orain, gainera, proiektu  
berria dugu esku artean. Mexi-  
kon Columbia etxearen ordezkari-  
tzat hartu dugu eta dendak  
irekitzen ari gara. Ez da egoera  
erraza, nabaritzen da oraindik  
pandemian gaudela, salmentak  
ez daudelako oso ongi, baina  
arriskatu nahi izan dugu eta  
kontent gaude.

**Lana gustukoa duzu?**

Oso gustukoa. Ez nuen sekula  
pentsatuko zapatari bukatuko  
nuenik, baina gustua hartu diot.  
Bulegora hornitzailea etorri  
izan denean, kiroletako oine-  
takoak aukeratzen oso gustura  
aritu izan naiz beti. Zapatilekin  
maniatiko samarra izan naiz  
beti... Gizonezkoen zapatekin  
ere nonbait hor moldatu izan  
naiz, baina takoidun oineta-  
koekin nahiko lan, kostatzen  
dela jartzea. Gainera gehien  
saltzen diren zapatak emaku-  
meenak dira... Eta gauza bat  
ikasi dut, ezin dela niri gustatzen  
zaidana erosi, bezero eta eros-  
leengan pentsatu behar dela.  
Gaur egun, tresna asko ditugu,  
zein oinetako saltzen den gehien,  
zein modelo, zein kolore... jaki-  
teko. Horrela errazagoa da.

**Eta erremontean ibiltzen zara?**

Bizesta ekarri nituen eta hasie-  
ran, tarteka ibiltzen nintzen.  
Baina pixkanaka-pixkanaka utzi  
eta urte bat izanen dut ari gabe.  
Erremonte bat hemengo jatetxe  
batekoei oparitu nien, eta ba-  
karra gelditzen zait. Ez dut inor  
ibiltzeko. Noizbait ni erremon-  
tean eta beste bat palan ibili  
gara, baina oso diferentea da.

**Kirola egiten segitzen duzu?**

Egunero saiatzen naiz. Gimna-  
sioa etxe azpian dut, eta bizikle-  
tan edo lasterka, pixka bat ibil-  
tzen saiatzen naiz. Pandemi-  
gatik pala utzia izan dugu bola-  
da batez, baina berriz hasi gara.

**Zure seme-alabek badute zure  
lehengo bizimoduaren berririk?**

Oraindik gazteak dira, zaha-  
rrenak Mikel izena du eta zaz-



Urrutia Mexikoko bere bulegoan. Erremontea utzi zuenetik zapata-dendetan egiten du lan. UTZITAKOIA

pi urte ditu, bigarrena Julen da  
eta bost urte ditu eta ttikienak,  
Nereak, laster bi urte egingen  
ditu. Badakite pilota asko gus-  
tatzten zaidala eta hor [Euskal  
Herrian] pilotan ibiltzen nin-  
tzela, batez ere zaharrenak.  
Etxe ondoan klub bat dugu eta  
larunbatero eta igandero ni-  
rekin eramaten ditut fronteni-  
sen aritzera. Eta hirurei eus-  
karaz egiten diet beti, ez diet  
hitz bat bera ere egiten erdaraz.  
Tarteka zerbait erantzuten

**«EZ NUEN SEKULA  
ZAPATARI  
BUKATUKO NUENIK  
PENTSATUKO»**

didate, baina dena entenditzen  
dute.

**Nola ikusten duzu erremontea?**

Ongi. Udaro hiruzpalau aldiz  
Galarretara joaten saiatzen  
naiz. Oskar anaiak hor jokutzen  
du... Joan naizenetan jendea  
dezente, giro polita eta jendea  
apustuak egiten ikusi dut, ez  
garai batean bezala, baina za-  
pore ona utzi dit. Pilotariak  
meritu handia dute, ez dute  
sekula etsi, eta egoera hobetzen  
ari da. Telebista ere sartu da,

**«ERREMONTISTEK  
MERITU HANDIA  
DUTE, EZ DUTE  
SEKULA ETSI»**

partida asko transmititzen di-  
tuzte, eta horrek ere lagundu  
izanen du.

**Etorkizunean non ikusten duzu  
zeure burua?**

Segur aski Mexikon segituko  
dut. Enpresa hemen dugu.  
Proiektu berriekin ari gara eta  
dena ongi ateratzen bada, he-  
men egon behar dut. Baina  
hemendik urte batzuetara  
gustura joanen nintzateke ho-  
rra bizitzera, lasaitasun bila,  
seme-alabei segurtasuna ema-  
teko. Horrek ez du preziorik.  
Udan Iruñean, eta batez ere,  
Eratsunen, gelditu gabe, liber-  
tate ikaragarriarekin ibiltzen  
dira kanpoan. Hemen, zoritxa-  
rrez, ezin dute horrela ibili.  
Horrexegatik bueltatuko nin-  
tzateke Euskal Herrira.



Ortzegunak erreindikazio egunak dira Baztan Haur Eskolan eta kamiseta horiak paratzen dituzte protesta moduan. UTZITAKOIA

## 0-3 ziklo duin baten aldeko borroka

**KRISTINA GOÑI ETXENIKE** BAZTAN HAUR ESKOLAKO ZUZENDARIA

0-3 Nafarroako haur eskolen plataformak mobilizazioak martxan paratu ditu eskoletako ratioak jaisteko eta lan-baldintzak duintzeko. Eskualdeko zentroek ere badute zer erran, eta Elizondo, Leitza, Bera, Doneztebe eta Lesakako haur eskolekin egon da TTIPI-TTAPA

### R. OSKARIZ

Nafarroako haur eskolen egoera «betitik arras txarra izan da, baina azken bi urte hauetan muga guztiak gainditu dira». Kristina Goñik, Elizondoko haur eskolako zuzendariak, argi du; «ezin dugu gehiago». 2001ean sortu zen 0-3 Nafarroako haur eskolen plataforma, «hasmentan aldarrikapen orokorrak egiteko; denon hezkuntzarako eskubidea, 0-3 urte bitarteko zikloa arautzen duen dekretua, zikoaren dohakotasuna...». Orain, bi aldarrikapen nagusi dira haien jomuga; ratioak murriztea eta lan baldintzak duintzea. Gainera, aldarrikapenekin «deus gutti» lortu dutela ikusita, mobilizazioak hastea erabaki dute, «ea behingoz aditzen diguten».

### Ratioak, Europako bikoitzak

Haur Hezkuntzako lehendabiziko zikloan, hau da, 0-3 urte bitartekoan, Nafarroako ratioak Europako bikoitzak dira. «Adibidez, Danimarkan titikoen gelan hezitzaile bakoitzarendako hiru haur diren bitartean, Nafarroan, zortzi ume ditugu. Ertainen gelan, 1-2 urte bitartekoan, Italian hezitzaile batek sei haur ditu; Nafarroan aldiz, 12. 2-3 urtekoen gelan, Frantzia zortzi ume daude bidelagun bakoitzarendako; Nafarroan, berriz,

**«HAURRAK ETORKIZUNA DIRA, BAINA BAITA ORAINA ERE»**

16». Begi-bistakoa da, «zenbat eta haur gehiago izan, orduan eta zailagoa da kalitatezko zainketa eskaintzea».

Talde ttikiagoak eskatzen dituzte, «haurrek merezi duten zaintza duina» eman ahal izateko, «ez baita berdina zortzi umerekin edo lau umerekin egotea, ez helduondako, ezta haurendako ere. Haien beharrik asetzeko, denbora eta atentzioa behar-beharrezkoak dira». Egoera honek «aldaketa sakona» behar duela argi dute, eta hau «guztion beharra»

**«GEROZ ETA GEHIAGO GARA GREBA EGITEAREN ALDE GAUDENAK»**

dela; «haurtzaroa zaintzea ez baita hezkuntza-komunitatearen ardura bakarrik, jendarte osoarena baizik. Haurrak, etorkizuna direlako, baina baita oraina ere».

### Lan baldintza «jasanezinak»

Nafarroako zentroetako langileek ez dute hitzarmen probintzialik, ezta langileen antzinatasunik ere, «gainera, soldata estatuko XII. hitzarmen kolektiboan zehaztutakoaren azpitik dago». EAEko haur eskoletan 1.772,79 euro kobratzen dituzte eta antzintasuna kontuan hartzen dute, Nafarroan berriz, antzinatasunik gabeko 1.229,65 euroko 12 paga dituzte urtean. Gainera, hainbat eskola udaleko azpikontratak dira, langile ez-zuzenekin. Ondorioz, bortz edo hamar urtetik behin enkanteak egiten dituzte eta langileek hezkuntza proiektua aurkeztu behar izaten dute, «horrek dakarren lan eta ziurgabetasunarekin».

Hala ere, «makurrena» ratioak direla azpimarratu du Goñik. Izan ere, Nafarroarekin alderatuta eta haur kopuru berdinarekin, EAEn langileen bikoitzak egiten du lan. «Ratioak jaisteko eskatzerakoan, ez ditugu haurrak kanpoan utzi nahi, guztiz kontrakoa, langile gehiago eta lan baldintza hobek eskatzen ari gara».

### Baztan Haur Eskola

Nafarroako egoera berdinean daude Elizondoko haur eskolako langileak; «gainezka, amorrus eta nekatuak, esaldi batean laburtzearren, 'nahi baina ezin'». 66 haur dituzte gaur egun; titikoen gelan 16, hiru hezitzaileekin (teorian covid-laguntzaren ardura du hirugarrenak), 1-2 urtekoen gelan 24 haur eta bi hezitzaile, eta 2-3 urte bitarteko gelan 26 haur eta bi hezitzaile. Zuzendariak, Goñik, bulegoko lanak eta gelakoak uztertzen ditu. Bi lagun aritzen dira garbiketan eta bertze bi pertsona jangelan laguntzen.



Denetara, 12 lagunek osatzen dute Baztan Haur Eskolako lantaldea.

Familiei «argi eta garbi» azaldu diete egoera hasmentatik, eta aldarrikapenetan parte hartzen dute haiek ere. Gainera, ortzegunak errebindikazio egunak dira Elizondon eta marea horia nagusitzen da Baztan Haur Eskolan; «Kamiseteta horiak paratzen ditugu haur, lankide eta familia batzuk, gure leloarekin: *Haur eskolen duintasunaren alde*». Gainera, pankarta bat paratzen dute eskolako atarian, *Haur eskolak SOS eta 0-3 duina eta zatitu gabearen alde* leloekin, bertzeak bertze.

Hala ere, Baztango Udalak ikerketa ekonomikoa abiatu du, haur eskola publikatu daitekeen edo ez baloratzeko. «Baiezkoa lortuz gero, ikaragarria izanen litzateke. Bai helduon, baita umeen baldintzak ere nabarmen hobetuko lirateke. Momentuz, erantzunaren esperoan gaude». Izan ere, kudeaketa ez-zuzena duten haur eskolak dituzte egoera okerrenak. «Kudeaketa zuzena duten zentroen kasuan, hots, publikoetan, franko baldintza ekonomikoko hobeak dituzte». Hala ere, ratioak berdinak dira denendako, eta «salbuespen gisa udal gutti batzuk langile gehiago bere gain hartzen dituzte».

#### Aspaldiko arazoa

«Nafarroan ratioak beti izan dira lotsagarriak». Hezitzaileek hau aldatzeko unea dela erabaki dute; «duintasuna da aldarrikatzen duguna, bai umeendako baita hezitzaileondako ere». 2001ean sortu zuten 0-3 plataforma, eta gerotik hainbat aldarrikapen egin dizkiote Nafarroako Gobernuari. Hasmentan, helburu orokorrak zituzten; denondako hezkuntzarako eskubidea aldarrikatzea, Hezkuntza Departamentuak 0-3 urte bitarteko zikloa arautzen duen dekretu bat garatzea, ratioak Europakoekin pare-

katzea, langileen titulazioak zehaztea, zikloaren dohakotasuna... «Lan handia egin zen urte luzez, baina fruitu gutti hartu genituen, eta jendea nekutzen joan zen, baztertuak sentitzen ginen». Plataforma desagertzekotan bazegoen ere, duela bi urte indarra hartu zuen berriz ere, eta gaur egun «jende kopuru adierazgarria gaude egoera aldatzeko borrokan».

Ratioak jaitea eta lan baldintzak duintzea dira haien helburu nagusiak, eta bi lantzaile hauek zehaztuta, borroka batzeko deialdia egin diote gizarteari. «Egun batek bertzera aldaketa zaila izanen dela pentsatzen badugu ere, lan eta borroka horretan pausoak ematen ari gara eta bada garaia jendarteak ere kontzientzia hartu eta lan horretan jarduteko. Beharrezkoak diren pauso guztiak emateko prest gaude, eta borroka honetan sinesten dugu, denon ongizatea baitugu helburu».

Plataforma irekia da, «edozein haur eskola edota norbanako sar daiteke bertara». Haur eskoletako ordezkariak osatzen duten lantalde motor batek antolatzen ditu mobilizazioak, «eta horietan, noski, edozeinek parte har dezake». Azkenaldian mobilizatzen diren familien kopurua handitu da, eta jendea animatu dute, «gaiak duen garrantzia kontuan hartuta, guztiok garelako beharrezkoak».

#### Marea horia

Orain arte, politikoeekin elkar-tu eta mintzatu da plataforma, elkarretaratzeak egin dituzte, prentsara idatziak bidali dituzte... baina gaur egun, «bide administratiboa bertan behe- ra uztea» erabaki dute eta mobilizazioetan jarri nahi dute indarra, karrikak marea horiarekin estaltzeko helburuarekin. Horretarako elkarretaratzeak, prentsa oharra, kotxeen karabanak, itxialdiak eskoletan, aldarrikapen jolas-guneak eta bertze hainbat →



Itzaire Haur Eskolako lantaldea.

## Leitzako Itzaire Haur Eskola

Sei hezitzailek eta sukaldeko laguntzaileek osatzen dute Itzaireko lantaldea, eta 36 haur dituzte aurten. Leitzako Udalak zuzenean kudeatzen du eskola, eta «kalitatezko zerbitzuaren aldeko apustua» egin du. Nafarroako Gobernuaren «utzikeria eta ardura falta konpentsatzeko egindako ahaleginei esker», langileek «lan baldintza duinak» dituzte. Hala ere, bat egin dute plataformaren salaketarekin eta «ziklo honen izaera hezitzailea aitortzea» eskatu diote administrazioari, «gainerako hezkuntza komunitateko kideen lan hitzarmenarekin bat egiteko». Irtenbidea «zikoari dago-kion lekua ematea da: doakoa, publikoa eta unibertsala». Familiek erakutsitako babesa azpimarratu nahi izan dute; «askok gure helburuarekin bat egin dute».



Magala Haur Eskolako lantaldea.

## Lesakako Magala Haur Eskola

19 haur zaintzen dituzte Magalan, bi gelatan banatuak. Zuzenbidean, gela bakoitzak hezitzaile bakarra du, baina 0-1 urtekoak zaintzeko egunean bi orduz laguntzaile bat gehiago dute eta 1-3 urteko gelaren erdiaz zuzendaria arduratzen da, «zuzendaritzako lanak lanorduetatik kanpo eginez». Ezarritako ratioekin lan egitea «ezinezkoa» dela eta egin beharreko lan guztia «hilabete bukaeran hartutako soldatarekin bat ez datorrela» adierazi dute langileek. Nafarroako Gobernuak «plataformako langile eta familiak serio hartzen ez dituela» salatu dute; «ziklo honen duintasuna aldarrikatu behar dugu. Argi dago zerbait egin behar dugula egoera hau aldatzeko. Mobilizazioekin hasi gara eta behar izanez gero, greba planteatu daiteke».

→ ekimen egiteko asmoa dute, «gobernalarekin negoziatzeko mahai bat lortu arte».

Greba egitea ere ez dute baztertu; «batzuk arras garbi ikusten dugu zerbait lortzeko modu bakarra dela, baina egia da beldurra dagoela, Nafarroa zabala baita eta tokian tokiko egoerak arras desberdinak baitira». Hasmentan «guttik» baloratzen zuten aukera, «baina erranen nuke geroz eta gehiago garelako greba egitearen alde gaudenak». Mobilizazioak antolatzen ari dira horretarako, «eta haur eskola gehienak, familia eta herritarrekin batera, animatzeko esperantza dugu. Poliki-poliki goaz, pausoz pauso, baina helburu garbiarekin: 0-3 zikloaren duintasuna bermatzeko mahai negoziatzailea lortzea».

Goñik argitu nahi izan duenez, «borroka honetan ez goaz udalen kontra, Nafarroako Gobernuak haurtzarora zaintzeko eta hezkuntza kudeatzeko dituen neurri eta erabakien kontra baizik».

**Lehendabiziko zikloaren garrantzia**

0-3 urteko tartea, 3-6 zikloarekin batera, «gure bizitzako etapa garrantzitsuenetarikoa da. Adin tarte horretan ditugun bizipen eta harremanak zehazten dute norbanakoaren identitate eta nortasuna, haurtzarora bizitakoa aitzinerago nolabait islatuz. Horregatik haurtzarora errespetatu, baloratu, maite eta zaindu behar dugula sinesten dugu».

Haur Hezkuntzaren kudeaketa Nafarroan «kaskarra» izan baldin bada orain arte, Carlos Gimeno Hezkuntza kontseilariak egindako proposamenak «mila zatitan puskatu gaitu». 0-3 zikloa zatitu nahi du eta bi urteko gelak bigarren zikloko eskola publikoetan ireki. «Haur eskola batzuetan adin horretako haur gehiegi daudela eta, erantzun bat emateko gezurrarekin mozorratu du bere proposamena. Guk, ordea, ez dugu bere irtenbidea inolaz

ere babesten. Pertsonala bikoiztuz gero, berak dioen gehiegizko haur kopuru hori primeran egonen litzateke haur eskoletan».

«0-3 zikloa erditik banatzea ikaragarriko astakeria iruditzen zaigu. Haur hezkuntzako bigarren ziklotik aitzinera irekita dauden ikastetxe gehienak ez daude prest bi urteko haurren beharrei erantzuteko». Langileei ere eraginen lieke neurri berriak; «hainbat haur eskola hesteko arriskuan egonen lirateke eta hezitzaile eta langile aunitz soberan geldituko lirateke. Kontuan hartzea da, gainera, hezitzaile gehienek goi zikloko ikasketak dituztela eta beraz, ezin izanen luketela bigarren zikloan lan egin».

**Mobilizazioak**

Egoera aldatzeko helburuarekin, 0-3 plataformak hainbat ekimen antolatu ditu azken hilabeteen Iruñean. Martxoaren 11tik 13ra itxialdiak egingen dituzte eskoletan, haien artean Beran eta Elizondon. Igandean elkarretaratzea egingen dute Elizondoko plazan 12:30ean eta herritarrak bertaratzea animatu dituzte. Bertze elkarretaratze bat egingen dute hilaren 26an, eta apirilaren 7an «eskola bakoitzean grebara joan ala ez baloratuko dugu». Apirilaren 9an Iruñean aldarrikapen jolasgunea egiteko asmoa dute eta 23an greba aitzineko langileen batzarra egingen dute. «Greba egitea erabakiz gero, maiatzaren 2an hasiko genuke. Ez dakigu zenbat denboraz, aste batekoa izan daiteke edo muga gabea, baina lortzekotan, denon artean lortuko dugu».

Hezitzaileen borrokan parte hartzera gonbidatu dituzte herritarrak, «haurtzarora zaintzeko eta maitatzeko apustua denona izan behar dela pentsatzen dugulako. Haurregatik, familiengatik, hezitzaileengatik... jendarte osasuntsuago eta duinago batengatik. Batu gure borrokara!».



Mukixu Haur Eskolako lantaldea.

**Berako Mukixu Haur Eskola**

Mukixuko langileek haurrei behar bezalako arreta ematea lortu dute, «gure esfortzu pertsonalaren ordainetan». Langile guztiak haurren zaintzan dabilta 07:30etik 16:30era, «eta alderdi administratiboko lanak eskola orduetatik kanpo egin behar ditugu». 41 haur dituzte matrikulatuak, zazpi hezitzailek, sukaldariak eta bi garbitzailek osatzen dute lantaldea, eta «hagitz nekatuak» daude. Ratioak «basakeria» direla salatu dute, «haurren ongizate fisiko, psikiko eta emozionala baldintza horietan bermatzea ezinezkoa da». Gimeno kontseilariaren proposamena «gutziz erabaki okerra» dela adierazi dute, «haurren zaintza delikatu eta kontzientea izan behar da. Haurtzarora zaindu beharreko harribitxia da».



Askin Haur Eskolako haurrak kanpoan jostatzen.

**Doneztebeko Askin Haur Eskola**

Doneztebeko Udaleko eskola da Askin, eta publikoa eta ttikia izateak «bere abantailak» ditu. 31 haur dituzte bertan, gela bakoitzeko hezitzaile batekin, eta zuzendari, sukaldari garbitzaile eta jangelako laguntzaileekin osatzen dute lantaldea. Nafarroako Gobernuak arauak ezarritakoa betetzen dute, «baina ez da aski, ratioak handiegiak dira eta ez dugu lan-hitzarmenik. Haur ttikiekin ari gara lanean, ez makinekin, eta lana ongi egiteko eta kalitatezko hezkuntza bat lortzeko baldintza onak behar ditugu». Ratioen jaitsiera eta lan hitzarmen baten sorrera «beharrezkoak» ikusten dituzte. Gimenoren proposamenaren aurkakoak dira; «ongi dago gure zikloa hezkuntzan sartzeko eta dohainik izatea, baina puskatu gabe, 0-3 adin tartean ezaugarri bereziak baititu».



**B**atzuetan ahaztu egiten gara gure eguneroko errutinaren parte diren gauza sinpleek duten balioaz, eta, besteak beste, ziurtzat jotzen dugu elikadura eskuragarri eta askotariko bat izateko aukera, haren jatorria, nutrizio-balioa, ingurunean duen eragina edo haren ekoizpe-  
nak dakarren ahalegina eta kostua zailantzan jarri gabe.

Azken urteetan gogorarazi digute lanbide asko ezinbestekoak direla gure bizi-mailari eutsi ahal izateko, lehen sektorekoak esaterako. Profesional horiei esker jaten dugu egunero; eta, hala ere, gizarteak ez du balioan jartzen pertsona horien dedikazio eta egiten duten ahalegina guk elikagai aberats eta osasungarriak izan ditzagun.

Cederna Garalur Elkarteak, lehen sektoreari laguntzeko eta balioa emateko helburuarekin, Nafarroako Gobernuak eta Europako LGENF funtsek finantzatutako proiektu bat abiarazi du 2014-2020 Landa Garapenerako Programaren barruan.

Proiektuak bi ekintza-ildo nagusi ditu. Batetik, tokiko produktuen erosketa bultzatzeko komunikazio-kanpaina bat antolatzea. Eta bestetik, lehen sektoreko langileei zuzendutako aholkuntze-aholkularitza eskaintzea, beren produktuen balioa eta landa-ingurunean duten eragina eraginkortasunez komunikatzen ikas dezaten.

### Bertakoa sustapenerako giltzarri

Zer egin genezake hainbeste ematen diren sektoreari gure babesa adierazteko?

Gure herrietan tokiko produktuak kontsumitzen has gaitezke. Horretarako, Cederna Garalurrek identifikazio-marka esanguratsu bat sortu du, "Etxean etxekoa/En casa lo de casa" lelopean tokiko produktuak denda eta tabernetan bilatzera eta erostera gonbidatzen gaituena. Gure etxearen parte izaten jarrai dezaten. Etxean etxekoa izaten jarrai dezagun.

### Ahalduntze-aholkularitza

Lehen sektorean lan egiten dutenei zuzendutako doako aholkularitza-saioak eskainiko dira, komunikazio-estrategia bat garatzeko asmoz. Komunikazio-estrategia horren bitartez, produktuen balioa ez ezik, lehen sektoreko lanaren garrantzia ere helarazi nahi zaio gizarteari, lan duina, profesionalizatua eta gure herrietako bizitzaren dinamizatzailea baita.

# Errebalorizazioa, lehen sektoreko langileak bultzatzeko metodo gisa





Martxa onean doaz Kaxernan egiten ari diren etxebizitzetako lanak.

## Udarako bukatuko dituzte babes ofizialeko etxeak

Alokairu sozialerako izanen dira zortzi pisuak eta abenduan esleitu dituzte

### AINHOA LARRETxea AGIRRE

Kaxerna auzoan babes ofizialeko etxebizitza bloke bat eraikitzeke lanetan ari da Nasuvinso Nafarroako Gobernuo enpresa publikoa. Alokairura bideratuko diren zortzi etxebizitza eraikiko dituzte denera, 35 urtetik beherakoentzat eta desgaitasunen bat edo bertzelako gizarte premiaren bat duten herritarrentzat.

Esteban Agirre hirigintza zinegotziak jakinarazi digunez, martxa onean doaz lanak eta udarako bukatzea aurreikusitu dute. Agirrek azaldu digunez,

lanak bukatuta pare bat hilabete beharko dituzte azken tramiteak egiteko, eta abendutik aitzinera bi asteko epean Nasuvinso alokairu poltsan izena emanda daudenek aukera izanen dute eskaera egiteko. Eskaera horiek aztertu ondotik egingen dituzte esleipenak.

Alokairu eskaera egin ahal izateko ezinbertzekoa izanen da aitzinetik Nasuvinso alokairu poltsan izena emanda egotea. Bi modu daude horretarako: Nasuvinso dituen bulegoetako batera joatea

edota *Clave* sistemaren bidez egitea. Agirrek eskatzaileei tramiteak «denboraz» egiteko eskatu die.

Agirrek nabarmendu duenez, alokairu poltsarako izen ematea «prozesu zabala» izatea nahi dute: «Izen ematearen bidez Berako etxebizitzen eskaria zein den ikusi nahi dugu, horrela etorkizuneko beharrak detektatzeko, eta datozen urteetan proiektu berriak sortu eta garatzeko bai etxebizitza berriak sortuz, baita dagoeneko dauden etxe hutsak berritu eta alokatuz ere».

### Lanak Kaxernan

Abenduan hasi, eta dagoeneko bukatu dituzte Kaxerna gaztetxea botatzeko lanak. Lan horiek bukatuta, ondoan eraikitzen ari den skate parke bukatzea, eta aisialdirako parke bat antolatzea da orain udalaren asmoa. Eraikinak utzitako zabalgunean aterpetxe bat eraikitzeke proiektua aspalditik eginga du udalak. Etorkizunean eta diru aurrekontuek ahalbidetuz gero proiektua aitzinerat eramatea da asmoa, baina, udalak jakinarazi duenez, epe laburrean ez dute halakorik aurreikusitu.

Gaztetxea botatzeko lanez gain, ur kolektore berria eraikitzeke lanak egingen dituzte, euri urak eta saneamenduko urak banatzeko. Lanak datozen egunetan hasiko dituzte eta 68.071 euroko aurrekontua izanen dute.

## Sastrako enpresa publikoa sortu dute kirol guneak kudeatzeko

### TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 1etik aitzinera udalak sorturiko Sastrako enpresa publikoa da herriko kirol instalazioak kudeatzeko ardura duena. Iazko urrian hartu zuen udalak enpresa sortzeko erabakia. Hainbat azterketa egin ondotik, dagoeneko martxan da enpresa. Sastrako izena hartu du, Toki Ona kiroldegi ondotik pasatzen den errekeri erreferentzia eginez. Enpresa publikoak aitzineko langileak mantendu ditu, eta erabiltzaileentzat ere ez du aldaketarik ekarri. Gaur egun antolamendu berrira egokitzeke lanetan ari dira langileak, eta datozen hilabeteetan eskaintza berritu eta egokituko dute. Gainera, gimnasioko makina batzuk ere berritu dituzte. Aitzinekoek 30 urte inguru zituzten eta horietatik sei kendu eta berriak ekarri dituzte, eta bertze material batzuk ere berritu dituzte.

Udalak nabarmendu duenez, udalak bere zerbitzuen kudeaketa publikoaren alde egingen du, azpi kontratazioak eta pribatizazioak ekidinez, «uste dugulako kudeaketa gardenago eta jasangarriago bat ahalbidetzen dela modu honetan».

**Alberto RETEGI**  
abokatua  
948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

**LABE ZAR**  
Astelehenerdik ortziralera:  
07:15etik aitzinera  
Larunbata eta igandea:  
08:00etatik aitzinera  
948 631 076 · BERA

**Anterola**  
Tekniko Instalatzailea  
ITURGINTZA · GASA  
KALEFAKZIOA  
Zerbitzu aitzak &  
Gremioen koordinazioa  
629 449 602

**MARITX**  
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK  
· BOLETIN INDUSTRIA  
· INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
T. (0034) 636 617 450  
Legia, 23 - BERA

**Zalain**  
JATETXEA RESTAURANTE  
Eramateko janaria  
astelehenerdik ortziralera  
Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info





200 lagun baino gehiagok hartu zuten parte inudeen eta artzainen desfilean.

# Giro ederrean joan dira aurtengo inauteriak

Inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren inudeen eta artzainen konpartsan: denera 200 lagunetik doiti

## AINHOA LARRETXEAGA AGIRRE

Iazko etenaren ondotik herritarrek gogoz hartu dituzte aurtengo inauteriak. Eta urteroko egitarau osoa egiterik izan ez bada ere, –bertan behera gelditu ziren kaldere-roak eta ortzegun gizona–, otsailaren 27an eta 28an giro ederrean ospatu zituzten aurtengoak.

Otsailaren 28an, igandean, inoizko inude eta artzainen desfilerik jendetsuena egin zuten. 164 dantzari, 20 musikari baino gehiago eta bertze hainbertze mozorro konpartsan. Denera 200 parte har-

tzaile baino gehiago atera ziren karrikara kantura eta dantzara.

Astelehenean izan zuen segida bestak. Zingar arrautze eskearekin hasi zuten eguna beratarrek, eta eguerdirako mozorroz bete zen erdigunea. Giro ederra izan zen, eguraldia lagun. Arratsaldean, Trikidantz taldearen erromeriak alaitu zuen eguna.

Inauteriak pasata, herriko beste begira hasteko ordua dute Beran. Martxoaren 14an, astelehena, bestak antolatze-ko lehen bilera irekia egingen dute Beralandetan 18:00etan.



ARTXIBOKOA

## Musika eskolako ikasleak saritu dituzte

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako piano ikasleak saritu dituzte Andoaingo 17. Piano Jaialdian. Urlei Sansinenak, Maitane Capdequik, Hegoa Irazokik eta Jimmy O'learyk urrezko domina eskuratu dute, eta Maitane Muhinsek, Lucia Pajaresek eta Loira Sansinenak, aldiz, zilarrezkoa.



ARTXIBOKOA

## Sastrako errekaaren pareta moldatu dute

Duela hilabete gutxi pareta, eta orain Sastrako erreka pasabidea konpondu du Berako jubilatutaldek batek auzolanean. Udalak materiala utzi, eta beraiek arduratu dira lanak egiteaz. Aitzinetik Konpaineko zubian, eta bertze hainbat lekutan ibili dira konponketa lanak egiten.

**0-3 Haur Eskola**  
 info@jesusenbihotza.com  
 640 07 45 06 whatsapp  
 948 63 00 09

**Parte hartzetik parte izatera.**

**Izen ematea irekia urte osoan zehar.**



## Herriko dantzarien eguna ospatuko dute hilaren 19an

Larunbat eguerdian ttikiaren emanaldia izanen da eta arratsaldean DJ Porru eta dantzari helduen saioa

### TTIPI-TTAPA

Joan den urtean bezala, herriko dantzarien eguna antolatu du Tantarumairu Euskal Folklore Taldeak martxoaren 19an. «Aurten ere herrikoak bakarrik ariko dira dantzan, ez gara animatu kanpoko taldeekin trukaketa egitera oraindik. Ea hurrengoan» diote taldetik.

Iazkoa bezalako egitaraua osatzea da helburua. Honela, Harriondoa kultur etxeko atarian emanaldia egingen dute ttikiaren larunbat eguerdi partean. Arratsaldean DJ Po-

rru ariko da eta ilunabarrean, taldeko nagusien ikuskizuna izanen dute kultur etxean.

### Ipuin kontalaria eta dokumentala

Aitzinetik, hilaren 15ean, asteartean 17:30ean, Adela Turinen ipuinekin osatutako saioa eskainiko du Maite Franko ipuin kontalariak liburutegian. 3-5 urteko haurrei zuzendua da eta heldu batez lagundua joan beharko dute. Hilaren 20an *Navarra XXI Nafarroa* dokumentala emanen dute 19:00etan Harriondoa.

## Teruelera eta Xabierera bidaiak antolatu ditu Beti Gaztek

### A. AROTZENA

Apirilaren 19tik 21era Teruelera hiru eguneko bidaiak antolatu du Beti Gazte elkarteak. Hiru egun horietan Matarraña, Valderrobre, Calaceite, Beceite, Cretas eta bertze zenbait leku interesgarri bisitatuko dituzte. Apuntatzeko azken

eguna martxoaren 7a zen. Bertzetik, Xabierera irteera ere antolatu du Beti Gazte martxoaren 12rako. Autobusa 05:45ean aterako da Fonda Mariatik. Hilaren 8a baino lehen eman behar da izena, 666 38 29 37ra deituz (Modesto).



Urtebeteko geldialdiaren ondotik indartsu ibili ziren zakozaharrak. JM ONDIKOL



Astelehenean karroza eta mozzorro ikusgarriak izan ziren. AITOR AROTZENA

## Inoiz baino indartsuago bueltatu dira zakozaharrak eta karrozak

### A. AROTZENA

Urtebeteko geldialdiaren ondotik, berriz ere inauterietako igandean zakozaharrak izan ziren protagonista. Arratsaldean ttikiak ateraz ziren trikitilariekin batera eta arratsean zakozahar handiak musika bandarekin, 75 bat. Berrogei urtez zakuak betetzen eta josten laguntzai-

le izan den Begoña San Julian gogoan izan zuten zakozaharrekin ateratzen baino lehen, minutuko isilunea gordez. Astelehenean hainbat karroza eta mozzorro ikusi ziren plaza inguruan. Goitarrak igandean eta astelehenean ibili ziren eta Fraindarrak astelehenean, baina herrian bakarrik, ez baserrietan.

**LOREAK ETA LANDAREAK**  
Frain Auzoa - LESAKA  
T. 948 637 826

**ORBELA**  
SENDERISMOA ATERPTEKAK  
**BEINTZAKO OSTATUA**  
Idoia - Mikel  
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN  
info@orbela-beintza.com  
www.orbela-beintza.com

**XAGU**  
**LIBURUDENDA**  
Tel. / Fax 948 638 232  
Koskontako bidea, 7  
(osasun-zentroaren parean)  
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**  
Abokatutza orokorrean · Herentziak  
Alokairuak · Arazo administratiboak  
Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hiltzordua hartzeko  
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com





Gazteak Astelehen Inaute egunean. ARGAZKIAK: IRUNE ETA ITSASO ELIZAGOIEN



Txurreria eta guzti izan zuten inauteri asteartean.

## Inauteriak giro ederrean eta umorez joan dira

Gazteak baserrietan eskean ibili ziren astelehenean eta asteartea mozorroen eta karrozen eguna izan zen

### IRUNE ELIZAGOIEN

Inauteriak ospatzeko gogo haundia zegoela agerian gelditu da herrian. Ortzegun goizean haurrak *Ortzain gizen* eskean ibili ziren etxe etxe. Ondotik, Ortzegun gizona ospatu zuten Landagain eskolan. Mozorrotuta, herriko txokoetan bertsoak eta dantzak egin zituzten. Igandean kinto bazkariak izan zituzten. Astelehen inaute egunarekin herriko gazteak baserrietan eskean ibili ziren. Asteartea, berriz, mozorroen eguna izan zen. Eguraldi ederra lagun, eguerdian plazan



Ttikienak Ortzegun Gizeneko eskean.

elkartu eta mozorro eta karrozek herriari itzulia eman zioten. Aurtengo inauteriei akabera emateko, gazteek bazkaria egin zuten Herriko Ostatuan.



Mekanikoeek lan zailak ere izan zituzten.



Tzimino manada bere ibilgailuan.

## Lehen jaunartze eguna

### Menu ezberdinak

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.



ETXALAR | T. 948 63 50 00 | [www.etxalar.com](http://www.etxalar.com) | [info@etxalar.com](mailto:info@etxalar.com)

KONTSULTATU GURE ESKAINTZAK







Mozorro gazteak baserri baten atarian. UTZITAKOA

## Gazteek eta haurrek ederki gozatu dituzte inauteriak

Ttikienak Ortzegun Gizen egunean ibili ziren etxez etxe eta antzezanak eskaini zituzten biharamunean

### MAITE, ANA ETA ITZIAR

Mozorroak auzoz auzo eta baserri ibili ziren otsailaren 19an eta 20an, inauteriak ospatzen. Gazteen ondotik, urtero bezala, Ortzegun Gizen egunean eskolara ailegatu ziren inauteriak. Taldetan banatuta eta mairuz mozo-roturik herriko auzo guztiak bisitatu zituzten.

Biharamunean, berriz, antzerki eguna izan zuten. Hiru antzezan eskaini zituzten: ttikienak *Haunditzen naizenean* izenburukoa, 1., 2. eta 3. mailakoekin olinpiadei buruzkoa eta, azkenik, 4., 5. eta 6. mai-



Haurrak ere etxez etxe ibili ziren

lakoek kontrabandistei buruzkoa.



UTZITAKOA

## Aldabe pilotan jokatzera Amerikara

2021eko Euskal Herriko ezker paretako klubaren arteko eskuz binakako pilota txapelketako ohorezko mailako txapelkunak eta txapelkunordeak Estatu Batuetako San Franziskoko Euskal Etxearen 40. urteurreneko jaialdira gonbidatu dituzte. Hauetako bat Joseba Aldabe herritarra izan da.



UTZITAKOA

## 400 zuhaitz landatu dituzte Abelun

Otsailaren 26an zuhaitzak landatzeko auzolanerako deia egin zuen udalak. 400 landare sartu zituzten Abelu mendian, bertako haritza 200 planta eta bertako pagoa bertze 200. Aitzinekoko astean, Frain mendian landatutako arbolei hodiak ere paratu zizkieten, guztira mila hodi.

**JAIONE-GOROTEGIA**  
Etxean egindako produktuak  
948 630 786 • Altzate, 21 • BERA

Produktuak  
de Vinos de  
**ERANDONEA, s.l.**  
PREMIATUAK ETA BARRASKATUAK  
BILTEGIA: 948 630 102  
SAKELAKOA: 633 480 563  
Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KONBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika • BERA  
zubiondojatetxea.com

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**Goieko**  
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO  
SISTEMA ETA PRODUKTOAK  
**DESIN BERA**  
DESINSEKTAZIOAK • ARRATOI-HILTZEAK • EGUR TRATAMENDUAK  
T. 948 625 597 • Zalain, 42 B • BERA



# Bi solasaldi antolatu dituzte egun hauetan

Ortzirale honetan doluari buruzko hitzaldia izanen da eta martxoaren 16an emakumearen egunaren harira bertze bat

## NEREA ALZURI

Aski diferenteak izanagatik, aski interesagarriak diren gaiak landuko dituzte egunotan solasaldietan. Batek dolua izanen du hizpide, eta bertzeak *Aukera librearen mitoa* du izenburu.

Doluari buruzko hitzaldia guraso elkarteak antolatu du. Ortziralean, martxoaren 11n, izanen da, 16:00etan eskolako gimnasioan. *Heriotzaz solas egiteak bizitzara hurbiltzen gaitu* izenburupean ariko da Ane Izagirre psikologoa eta ondotik Marina Pintosekin meditazioa egiteko aukera izanen da. Parte hartzeko ez da aitzinetik izena eman beharrik izanen. Herriko gurasoek debalde izanen dute eta kanpotik datozenek bortz euro ordaindu beharko dituzte.

**Martxoaren 8aren harira**  
Bertzetik, martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean, elkarretaratzea egitekoa zen plazan. Horrez gain, martxoaren 16an, udalak antolatuta, Idoia Lekuek *Aukera librearen mitoa* solasaldia emanen du. Hitzordua Baskulan izanen da, 18:00etan.

## Udalak desfibriladorea paratu du gorapean

Behar denean erabiltzeko, udalak desfibriladorea paratu du gorapean. Otsail erdialdean, berriz, desfibriladorea erabiltzen ikasteko eta lehen sorospenen inguruko ikastaroan hamabi lagun bildu ziren. Lesakako osasun etxeko bi erizainek eman zituzten azalpenak.

## Udaberriko besta apirilaren 9an Burlada ostatuan

Abenduan egitekoa zuen besta gibelatu eta Burlada jateak, udaberriko besta antolatu du apirilaren 9rako. 14:00etan bazkari izanen da eta ondotik Belfasten musika. Txartelak 50 eurotan daude (bazkaria, musika eta iluna-barreko luntxa).



Otsailaren 19an gaztainen harira egin zuten saioko irudia. JOSE RAMON AMOROS

## Gaztainen inguruko hurrengo saioa apiril hasieran egingen dute

### NEREA ALZURI

Duela urte eta erdi, udalak hasitako bertako gaztaina barietateak berreskuratzeko proiektuaren barrenean, bi saio egin zituzten otsailean. Otsailaren 18an, zuhaitzaren eguna egin zuten eskolako neska-mutikoei, Argatsoron gaztainak landatuz. Biharamunean, helduen txan-

da izan zen eta 15 lagun bildu ziren. Bezperan bezala, Efen Martin adituaren azalpenak aditu zituzten. Goizez, landaketez gain, gaztaina zaharren mantentze lanez aritu ziren. Arratsaldean alde teorikoa landu zuten. Apiril hasieran bertze saio bat egingen dute, batez ere, zuhaitzen txertaketari buruz.



TTIPI-TTAPA

## Gora gure artistak!

Betiko tenorean ezin izan zuten, baina ailegatu zen otsailaren 17a eta herriko eskolako haur eta gaztetxoek antzezlanak taularatu zituzten, aitzinetik Estixu Mentaberrirekin prestatu ondotik. *Otsoa eta antxumeak*, *Udaberria badator* eta klima aldaketari buruzko hiru antzezlan egin zituzten.

## AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

### GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

## Jauzena

Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa eta etxez etxeko konponketa  
Antenak, satelite bidezko instalazioak

# DONEZTEBE

## Martxoaren 8ko ekintzekin bat egin du liburutegiak ere

Emakumeen txokoan liburu erakusketa izanen da eta 'Indarkeria kontsumitzen al dugu?' erakusketa ere laster

### MARGA ERDOZAIN

Martxoaren 8arekin bat egin da bi ekimen antolatu ditu liburutegiak. Alde batetik, Emakumeen Txokoaren liburu erakusketa, feminismoren inguruko liburuen hautaketa ikusgai eta eskuragai paratu ko duena. Bertzetik, martxoaren 21etik apirilaren 1era *Indarkeriarik kontsumitzen al dugu?* erakusketa izanen da. Myriam Cameros artista nafarrak egindako 12 panelen bidez SETEM izeneko Gobernu Kanpoko Elkarteak bideratutako erakusketa da. Gogoetatik abiatuak testuekin arazo estruktural eta sistematikoak izan arren, normalean ikusezin eta normalizaturik dauden kontsumo eta indarkeria matxistaren arteko harremanak ezagutuko ditugu. Erakusketaz gain, martxoaren 30ean, asteazkena, 17:30ean, *Emakumeak fabrikatzen* bideo-foruma egingen da eta apirilaren 1ean (ortziralea) haurrentzako Kamishabai eta tailerrean *Laika beldar ausarta* ipuina landuko dute, 17:30ean hasita.

### Kabiak

Kabiak, Saharar errefuxiatuen kanpalekuetako liburutegieta ko aleak ere gurean izanen dira. Liburu erakusketa edo sorta honekin hainbat helburu xume bete nahi dituzte: kultura eta literatura sahararraren eta nafarraren arteko zubiak eraikitzea eta bai hizkuntzak, bai kulturak gizateriaren altxorrak direlako Errefuxiatuen eremuetako liburutegiari hala nola bibliobusei eta beren langileei laguntzea. Gogoratu Oporrak bakean 2022rako ere prestatzen ari direla. Saharaztan elkarteak deialdia egin du harrera familiar behar dituztela erranez. Interesatuak apirilaren 15a baino lehen deitu behar dute: Mixel (635 59 93 06).

Liburutegiko poesia tailerren martxoko topaketa martxoaren 14an egingen dute, astelehenean, 17:00etan.

Martxoaren 25ean Malerreka Euskarazko Irakurle taldearen 3. solasaldi idekia egingen dute. Oraingoan *Ene baitan bizi da* liburua landuko dute Maddi Ane Txoperena eleberraren egilearekin.



LEIRE UTERGA

## Inauteri ederrak izan dira

Mozorroak kutxetan sartuta, orgak heldu den urterako birziklatzeko asmoa izanda eta inauterietako katarsia berriro bizituta errutinako mozerroa jantziko dugu, norbera denaren kareta jantzita helduko diogu garizuma eta ondokoari, katarsia norberak kudeatuko du urtea koloreduna bihurtzeko.



MENDI ABESBATZA

## Mendiren tailerra Xabier Sarasolarekin

Xabier Sarasola musikari eta konpositorearekin tailerra izan zuten otsailaren 19an Mendi Abesbatzako kideek. Goizean ahots kordaka banatuta egin zuten ikastaroa, eta arratsaldean denak elkarrekin bildu ziren zineman. Hurrengo saio bat prestatzeko gozoz gelditu ziren.

Elizagibela Promociones S.L.

**ETXEBIZITZA PROMOZIOA**  
18 ETXEBIZITZA 8 LOKAL

[www.elizagibelapromociones.com](http://www.elizagibelapromociones.com)  
[elizagibelapromociones@gmail.com](mailto:elizagibelapromociones@gmail.com)  
**T. 643 466 998**

**ERAIKINA EGITEN HASIA!**

- 2 (80 m<sup>2</sup>), 3 (90 m<sup>2</sup>) eta 4 (100 m<sup>2</sup>) logelako etxebizitzak trasteroarekin Doneztebeko Elizagibela karrikan
- Lokal komertzialak





Infantil mailan lehiari ari diren lau mutikoak. ERREKA KE

## Berriz ere konpetitzeari ekin diote Errekako judo eskolako judoek

### TTIPI-TTAPA

Pandemiaren geldialdiaren ondotik, Doneztebeko Erreka elkarteak judo ataleko kirolariek gogoz hasi dute denboraldia. Otsailean txapelketetan hasiak dira: lehenengoak, infantil eta kadeteak hiru faserekin, eta alebinak birekin. Kadete mailan bi neska ari dira, Maialen Maritxalar 63 kiloko kategorian eta Gaxuxa Zelaieta 57 kilokoan. Infantil mailan, berriz, lau judoka paratu ditu Errekak tatami gainean: Eneko Zulaika (60 kiloko kategorian), Joanes Juanotena (46 kilo), Xabat Maritxalar (42 kilo) eta Unai Irigoien (38 kilo). Alebinetan, Aitor Irazoki (42 kiloko kategorian) da Errekako partaide bakarra.

Noelia Ariztia entrenatzaileak adierazi duenez, «hauek guztiek ilusio handienarekin jokatu dute lehenengo fasea,



Neska kadeteak eta mutiko alebina.

konbate batzuk galdu eta bertze batzuk irabaziz. Konpetituz ikasten da konpetitzen, hau dela eta akatsetatik ikasi eta hurrengoa prestatzen segituko dugu klubean».

## Xabierraldira autobusez joateko aukera emanen du aurten ere Erreka elkarteak

### MARGA ERDOZAIN

Joan den urteko geldialdiaren ondotik, aurten bai, Xabierraldiak ospatuko dituzte eta, aspaldiko ohiturari eutsiz, parte hartzeko autobusa antolatu du Erreka Kirol Elkarteak. Xabierraldia martxoaren 12an, larunbata, izanen da; 04:40ean

autobusa Beratik aterako da eta 05:00etan Doneztebetik abiatuko da. Ibilaldia egin ondotik, arratsaldean autobusak Xabierren hartuko ditu parte-hartzaileak. Titi Ostatuan apuntatzeko azken eguna martxoaren 8a zen (bazkideek 15 euro; ez bazkideek 20 euro).



Itzaloko borda eta Ondor bordarako pista moldatua. UTZITAKOA

## Itzaloko borda eta Ondor bordako pistak moldatuak

Sasoi enpresak egin ditu lanak eta 16.297 euroko aurrekontutik zati bat udalak ordainduko du

### MAIDER PETRIRENA

Itzaloko borda eta Ondor bordako pista dagoeneko moldatu dute. Sasoi eskabazio enpresak konpondu du eta Aldirako Toki Inbertsioen Plana dirulaguntzen baitan kalteak izaten direnean eskatu daitekeen Larrialdiko Prozeduran bitartez egin da.

### 16.292 euroko aurrekontua

Hasierako aurrekontua bertze bat zen, tikiagoa, baina uholdeen ondorioz kalteak handitu zirenez, obra bertze modu batean egin behar izan dute eta, azkenean, 16.292,27 eurokoa izan da. Kopuru horretatik zati bat udalak ordainduko du.



**MINIESKABAZIOAK**

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK  
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

**LARRALDEA**  
eta  
**LINDDURRENBORDA**

**Baztan Bidasoko sagardotegiak**

---

**Dolarea**

**Eskualdean egindako sagardoa**

**Txotx denboraldiaren irekiera**

---

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317  
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212



Puntako teknologia du ibilgailu berriak. UTZITAKOIA

## Hondakinak biltzeko kamioi berria erosi dute

Errefusa eta gai organikoa biltzeko erabiliko du Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak ibilgailu berria

### TTIPI-TTAPA

Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitateak kamioi berria erosi du eskualdeko etxe, denda, ostatu, jatetxe, tailer eta abarretako hiri hondakinak biltzeko.

Puntako teknologia duen ibilgailu berria errefusa eta gai organikoak biltzeko era-

biliko dute. Mankomunitateko arduradunek adierazi dutenez, «hondakinen bilketa egiteko kamioiak urte aunitz zeramatzan lanean eta hagitx zaharkitua zegoenez, berritu behar zen. Eskuratu dugun kamioi berri honekin etorkizuneko erronketera egokitu ahal izanen gara».



TESTUA ETA ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA

## Malerrekako pilotari gaztetxoak Adosekin

Malerrekako pilotari gaztetxoaren ordezkariak ere izan zen Ados pilota elkartearen finaleran, Azkoitian. Ezkerretik eskuinera Garazi Iñigo Lujanbio, Ane Deskarga Ariztoi, Leiane Alzuri Mindegia, Irati Altxu Martin, Dunixe Alberro Iasasi eta Iraide Iriarte Petrirena. Erdiko biak Zestoakoak dira.



Giro ederrean joan ziren inauteriak Urrozen ere. JAIONE ARIZTEGI

## Bertzelako formatuan, baina inauteriak ospatu dituzte aurten Urrozen ere

### JAIONE ARIZTEGI

Ohiko formatuan izan ez bada ere inauteriak ospatu dituzte aurten Urrozen ere.

Egoera normalean, haurrak herriko etxeetan eta gazteak baserrietan jan-edanean pasatuko zuten inauterietako eguna, baina aurten horrela ez egitea erabaki zuten. Ho-

rregatik, ortziraleko afariarekin hasi eta larunbateko bazkariarekin eman zieten segida inauteriei.

Haurrak, arratsaldean bildu, eta merienda izan zuten, eta ondotik, Modesto akordeoi-lariarekin gozatzeko aukera izan zuten herriko haur, gazte zein helduek.

## Emakumearen Egunaren harira hainbat ekintza egin dituzte Pulunpa eskolan

### ARKAITZ MINDEGIA

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira, ekintza ugari antolatu zituzten Pulunpa eskolan. Alde batetik, herritarra den Laura autobus gidaria eta Ados pilota enpresako ordezkariak etorri ziren eskolara ikasleekin egotera. Bisitan beraien egunerokoa eta esperientzia azaldu eta haurren

galderak erantzun zituzten. Bertetik, bosgarren mailako haurrek beraien amatxiren biografia aurkeztu zuten. Azkenik, eskolako irakasle eta ikasleek Kantu Kolore taldearen *Nire gorputza* da abestia kantatu eta nola ez koreografia dantzatu zuten, eta drone baten laguntzaz grabatu zuten.

## Oinarrizko gaitasun digitalei buruzko ikastaroa eskainiko du Iturengo Udalak

### ARKAITZ MINDEGIA

Nafar Lansare eta Nafarroalo Gobernuako Telekomunikazio eta Digitalizazio Zuzendaritzarekin elkarlanean, Iturengo Udalak oinarrizko gaitasun digitalei buruzko doako ikastaroa antolatu du. Langabe-tuentzat 40 orduko ikastaroa

izanen da eta bazterketa arriskuan edo eten digitalean daudenentzat 20 orduko ikastaroa. Martxoaren 15a baino lehen eman behar da izena udal-etxera deituz edo [udala@ituren.eus](mailto:udala@ituren.eus) era idatziz. Gutxienez 10 laguneko taldeak osatu behar dira bi ikastaroetan.



## Martxoaren 26rako egitarau zabala prest du Ernaik Donezteben

'Bostehun urte eta zutik!' goiburuean solasaldiak, herri bazkaria, kalejira, ekitaldia eta kontzertuak antolatu dituzte

### TTIPI-TTAPA

*Bostehun urte eta zutik! Malerrekako Gaztik independentzia* goiburuean egitarau zabala prestatu du Ernaik Donezteben.

Martxoko azken larunbaterako prestatu dituztenak has-teko, 11:00etan *Euskal matxina da berriak*. Gaurko eta biharko eztabaidak hitzaldia emanen du Andoni Olariagak Herriko ostatuan. 12:30ean herri kirolak izanen dituzte Ezkurra pilotalekuan. 14:30ean herri bazkaria leku berean, Bittori Elizalde eta Iker Gorosterrazu bertsolariekin. 17:30ean aldarrikapen kalejira egingen dute herrian barna. 22:00etan hasita ekitaldia izanen dute eta ondotik kontzertuak Ezkurra frontoian, Diraki, Sofokaos eta Herdoil taldeekin eta DJ Bullekin.

Bazkarirako eta kontzertuetarako txartelak 12 eurotan salgai daude Titi (Doneztebe), Arrano (Lesaka), Intza (Elizondo) eta Monton (Iruñea) ostatueta. Bakarrik kontzertuetarako txartela ere eros daiteke, bartz eurotan.

### «500 urteren ondotik zutik»

Ekitaldi honen lehen aurkezpena ilbeltzean egin zuen Malerrekako Ernaik, Gaztelako tropek Makilipurdin zegoen Orzorrotzeko gaztelua suntsitu eta erre zutenetik 500 urtera. Gaztelua zegoen tokian oroigarria paratu zuten, gisa honetara «500 urte eta gero zutik gaudela» aldarrikatuz: «500 urte pasatu diren honetan, herri zanpatua izaten segitzen dugu, Espainiar eta Frantziar estatuen menpe segitzen dugu, askea ez den Euskal Herri batean bizitzera kondenatu nahi gaituztelako». Ernairen hitzetan, «zapalkuntzara kondenatu nahi izan gaituzte, baina haien zoritxarreko herri hau bizirik dago, bizirik gaude. Orzorrotzeko gaztelua eraitsi zuten, baina ez zuten herri nortasuna desagertzerik izan». Are gehiago, «irudikatzen dugun Nafarroa askea ametsa baino gehiago» dela nabarmendu zuten: «Guri dagokigu 500 urtetako sua bizirik mantentzea, herri honen memoria eraikitzea, guri dagokigu oraina eta etorkizuna».



TESTUA ETA ARGAZKIA: ARANTXA ITURRALDE

## Inauteriak giro onean Beintza-Labaienen

Aurten gogoz bizitu dituzte inauteriak. Otsailaren 18an eta 19an mozzorro festa egin zuten. Ostiralean gazteek afaria egin zuten Itur-ondo elkarteetan. Larunbatean, berriz, gosari-afariarekin ospatu zuten eguna. Eta Beintzako ostatuan, ohitura den bezala, haurrek eta gurasoek bazkari ederra izan zuten.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

## Ibilgailu elektrikoak kargatzekoa Ezkurran

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko gune bat jarri du udalak Ezkurra pilotalekuko aparkalekuan. Toki entitateetan energia eraginkortasuna sustatzeko, energia berriztagarriak ezartzeko eta mugikortasun elektriko bultzatzeko laguntzen deialdiak finantzatutako inbertsio bat da.

**ARGI izan** eredu **Distiratsua**  
**modelo Dinámico** **eleanitza**  
**multilingüe**

Escuela pública navarra en euskera  
 Nafar eskola publikoa euskaraz

**NIZE**  
 D Ikastetxe Publikoak

www.nize-d.com

**TTIPI-TTAPA**  
 SARE SOZIALETAN

facebook  
 www.facebook.com/ttppi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



Irisarri, Iparragirre, Albisu eta Urrutia Bertizen egindako batzarrean.

## Mikel Albisu da turismo elkarteko presidente berria

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak 51.988 euroko aurrekontua izanen du aurten

### TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak urteko batzarra egin zuen otsailaren 22an Bertizen, 2021eko kontuen balantzea egiteko eta 2022rako aurrekontu berriak onartzeko.

Kontuen balantzea orekatua izan da eta onartutako aurrekontua (51.988 euro) ia zokoa berdintsua izan arren, badu ñabardura bat: Europar Batasuneko Next Generation funtseketa Baztan-Bidasoko UGET (Turismo Erakundeak Kudeatzeko Unitatea) sortzeko baldintzatutako aurrekontuak dira. UGETak Hirurteko Plan Turistikoaren baitan lan egitea aurreikusten du. Hortaz, ekintzak plan horretan kontuan har daitezkeen, beharrezkoa da hiru urteko ikuspegiarekin planteatzea.

Hiru bloketan banatzen dira Baztan-Bidasoa Turismo Elkarteak Hirurteko Plan Turistikoan aurkeztutako ekintzak: alde batetik Elkarteak burutu beharreko ekintzak; bertetik, Toki entitateekin (Udalak) batera burutu beharrekoak; eta, azkenik, Nafarroako Gobernarekin egin beharrekoak,

Bertizen aurreikusitako BTT eta Nordic Walking zentroak, erraterako.

### Mikel Albisu presidente berria

Urteko batzarrean zuzendaritza batzordea ere berri du elkarteak. Mikel Albisuk hartu du Patxiku Irisarriren lekukoa presidente karguan eta bera izanen da Elkartearen ordezkaria Baztan-Bidasoko UGETeko koordinazio batzordean ere. Patxiku Irisarri izanen lehendakarioordea izanen da eta Belen Urrutiak idazkari izaten segituko du. Zuzendaritza batzordea Eneko Eskuderok, Ruben Garatek eta Marijose Iparragirrek osatzen dute.

Elkarteak gauzatu beharreko ekintzen artean dagoeneko finkatuta dauden hainbat proiektuarekin aitzinera segitzea onartu dute, hala nola bisita gidatuen eskuorriaren argitaratzea, Ehiza Jardunaldi Gastronomikoaren antolatzea, Zerbitzuen Gida QR kode batekin eguneratzea, Erreserba Zentrala eta web orria hobetzea edo *Oihanean sentitu* ekimena garatzea, ipuin kontalariekin ibilbide gidatuak eskainiz.



Etxeberrian paratutako panela. UTZITAKO ARGAZKIA

## 'Zubietan barna' ibilbide gidaturako panela paratu dute estalpean

### FERMIN ETXEKOLONEA

*Zubietan barna* izeneko panela paratu dute estalpean. Bertan herrian barna antolatutako ibilbide gidatua ikusten ahal da.

Ibilbidean zehar intereseko zenbait eraikuntza (plaza, eliza, etxeak, kislulabeak, iturriak, errota,...) ikusten ahal dira. Aukeratutako eraikuntza bakoitzean ere kartel txiki bat paratu dute informazioa lortu ahal izateko. Informazioa lau hizkuntzatan (euskara, gaztelania, ingeleza eta frantsesa) deskargatzen ahal da QR kodearen bidez.



Estalpeko panela.

### Emakumearen Eguneko afaria

Emakumearen Eguneko afaria egingen dute martxoaren 12an, larunbatean, estalpean.



UTZITAKOIA

## Joaldunak Ama Hizkuntzaren Egunean

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen otsailaren 21ean eta Euskarabidea-Euskararen Nafarroako Institutua kide duen NPLD Hizkuntza Aniztasuna Sustatzeko Europako Sareak argitaratutako bideoa atsotitzen artean, Imanol eta Olatz Baleztena joaldunek errandakoa ageri da.





Arkupeak elkarteko kideak sagardotegian. PABLO IRASTORTZA

## 100 lagunetik goiti sagardotegira egindako irteeran

Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariekin bertso bazkaria izan zuten Urnietako Oianume sagardotegian

### P. IRASTORTZA

Bi urtez horrelako ekintza bat antolatu gabe egon ondotik, otsailaren 17an bertso bazkaria izan zuten Urnietako Oianume sagardotegian Andoni Egañarekin eta Sebastian Lizasorekin. 103 bazkide bertaratu ziren, bi autobusetan joanda. Aperitibo gisa bertso batzuk aditzeko parada izan zuten eta bazkariaren ondotik izan zuten bertsolarien jardunaz gozatzeko aukera. Aurkezleak jarritako borts edo sei gairen inguruan aritu ziren kantuan.

Ez zen dena bertsoa izan, dantza eta musika zaleek izan

zuten beren tartea; Aitor Legasa musikari gazteak denak paratu zituen dantzan.

Sagardotegiaren ondotik, martxorako bi irteera antolatuak ditu elkarteak. Hilaren 8an Xabierre joan ziren – hurrengo aldizkarian emanen da honen berri-, eta martxoaren 25etik apirilaren 1era Andaluziara joanen dira.

Gainera, apirilaren 28an egiteko zen irteeran aldaketak egin dituzte. Galarretara joan beharrean Zarautzera joanen dira azkenean. Izen ematea martxoaren 21ean, 22an eta 23an egin beharko da norbere herriko delegatua deituta.



P. IRASTORTZA

## Mari Karmen Auzkirentzat azken saskia

Otsaileko galderan Bidasoa ibaia eskualdeko zein herritan sortzen den asmatu behar zuten elkarteko bazkideek. Erratzu zen erantzun egokia, eta hain zuzen, Erratzura joan da Perón etxeko saskia ere. Asmatzaileen artean egindako zozketan Erratzuko Mari Karmen Auzkiri egoki zaio saskia. Zorionak!

### Martxoko galdera

Idatzi itzazu Nafarroako txapeldun izan diren bi bertsolariren izen-abizenak ☎ 618 56 78 37.

## Ikastaro berriak eskainiko dituzte Oronozen, Elizondon eta Beran

### P. IRASTORTZA

Bertze hiru ikastaro berri paratu ditu abian elkarteak Oronozen, Elizondon eta Beran. Oronozen *Positiboan bizi* izeneko ikastaroa abiatu zuten otsailaren 24an, eta apirilaren 29ra arte ortziraleroko izanen dute, 16:00etatik 18:00etara Ramoni Ordoki psikologoarekin. Elizondon *Oinarrizko*

*gaitasun digitalak* ikastaroa izanen dute martxoaren 28an hasi eta apirilaren 1era, 16:00etatik 20:00etara Lanbide Eskolan. Beran ere ere ikastaro bera eskainiko dute apirilean. Berako kasuan, aitzinerago zehaztuko dituzte bai ikastaroa egiteko data, baita lekua ere. Hiru ikastaroak doan izanen dira.

## Otsaileko mendi irteera Bera eta Lesaka artean egin zuten mendizaleek

### P. IRASTORTZA

Ramon Tapia gidari zutela, ia borts orduko ibilaldia egin zuten Arkupeak elkarteko mendizaleek otsailaren 15ean Beran eta Lesakan. 46 lagun bildu ziren Zalain, Harrobia, Bereau, Nabaz, Erramuegiko erreka, Alkaiaga eta Zalain

artean egindako ibilbidea osatzeko. Ondotik, osasun murrizketak bertan behera gelditu direla probestuz, Zalain jatetxean bazkari dotorea izan zuten.

Hurrengo irteera martxoaren 15ean egingen dute, Hondarribian, itsas bazterrean.



Mendizaleak Bera eta Lesaka artean egindako irteeran. PABLO IRASTORTZA

## Sagarrondoei buruzko formazioa asteburuan hasita

Inguruan sagarrondoeikin izan den eta dagoen harremana dela eta, lau saioko ikastaroa antolatu dute

**JUAN MARI BARRIOLA**

Gure eskualdean dauden fruta arbolenguruarantz Mendialdeko Elikadura Mahaia osatu zuten, Cederna Garalur garapen agentziak bultzatuta. Eta orain, sagastiak nola kudeatu jakiteko formazio saioko antolatu dituzte.

Lau saioko ikastaroa izanen da. Ostiral arratsaldetan, 16:00-etatik 19:00etara, zati teorikoa landuko dute Lekunberriko Plazaola Partzuergoan eta larunbatetan, 10:00etatik 13:00etara, saio praktikoa sagasti batean. Lehen saioa asteburu honetan,

martxoaren 11n eta 12an, izanen da. Sagarrondoen inausketaz ariko dira eta praktikak Tardoa baserrian egingen dituzte. Apirilaren 8an eta 9an osasun kudeaketaz eta gaitzez ariko dira; ekainaren 10ean eta 11n mahai-ko sagarrak eta sagardoarenaz eta irailaren 30ean eta urriaren 1ean uztaz eta uzta ondoaz.

Ikastaro honekin bertako sagastien erabilera nola bidera daitekeen aztertu nahi dute, eta uztari bide emanez, bertako kontsumo ohituretan eragin nahi dute. Izen-ematea: [www.intiasa.es](http://www.intiasa.es) edo 948 01 30 58.



ELA SINDIKATUA

## Manifestazio jendetsua

Torraspapeleko langileei elkartzasuna adieraziz, jendetza bildu zen otsailaren 26ko manifestazioan. Enpresa batzordeak «oso balantze positiboa» egin du eta eskerrak eman dizkie «bertaratu ziren guztiei emandako babesagatik eta indarragatik». Lerro hauek idazterakoan, negoziazioen inguruan ez zegoen berririk.

## Antzerkia, zinema eta Korrikaren dokumentala

**TTIPI-TTAPA**

Asteburu honetan eta hurrengoetan hainbat hitzordu izanen dira Herri Aretoan. Igande honetan, hilaren 13an, *Kasilda, bukatzen ez den sua* antzezlan egingen du Goitibera konpainiak, 19:00etan. Martxoaren 19an eta 20an, bi film pantailaratuko dituzte, bi pase egun bakoitzean: Publiko guztiarentzat *Ilargirantz*, 16:30ean, eta *Licore pizza* 12 urtetik gorakoentzat, 19:00etan. Martxoaren 31n, Korrika Batzordearen eskutik, *Uhinak* dokumentala izanen da ikusgai, 19:00etan.

## Pediatra berria epe luzerako izanen da

Pediatra berria lanean hasi da, eta udalak modu iraunkorrean eta epe luzerako izanen dela esan du. Aspaldikoa zen eskakizuna, gorabehera asko izan dira azken urteetan eta herritarren etengabeko eskaeren zein udalaren gestioen ondorioz lortu da zerbitzua bermatzea.

## Erortzearen tokia egonkortzeko lanak gobernuaren esku

**JM BARRIOLA**

Bernardo Ziriza Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Kontseilaria NA-170 errepidea eta bide berdearen arteko abendu eta urtarrileko erortzen ondorioak ikusten izan zen otsailean, Mikel Zabaleta alkatearekin. batera. Azken urteetan erortze ugari eta arazo asko ematen ari den malda da eta erabateko irtenbidea emateko aztertzen ari dira. Badirudi Nafarroako Gobernuak moldatuko duela, lurra egonkortzeko hainbat lan giteko agindu baitu.


## Sarek bertso bazkaria antolatu du martxoaren 26an

Leitzako Sare Herritarrak, bertso eskolaren laguntzarekin, martxoaren 26an bertso bazkaria antolatu du Kornietan. Joanes Illarregi eta Jone Uria izanen dira gonbidatuak eta txartelak 28 eurotan Maimurren daude salgai; lan-gabeentzat 16 eurotan.

## Atsauren erakusketa Altsasun

**JM BARRIOLA**

Leitzako ihauterietan Altsasuko ihauterietako pertsonaia ezagunen erakusketa jarri zuten Herri Aretoan. Eta Altsasuko ihauterietan Leitzakoei etorri zitzaizen txanda. Guztira bost pertsonaia jarri zituzten Altsasuko kultur aretoan otsailaren 21etik martxoaren 1era: errekako atsaurea, bi adardun azienda itxurakoak, zankoduna eta zaku handia akerraren jantziarekin. Argazki eta azalpen batzuekin osatu zuten erakusketa. Pesta batzordearekin hitz eginez



Erakusketako pertsonaia bat. JM BARRIOLA

antolatu zuten trukaketa eta ALKEk duen materialarekin osatu zuten.

Erakusketa hori Leitzan ere jarri nahi dute eta aurrerantzean handitzea dute helburu.





Jendearen berotasuna jaso zuen Bengoetxeak otsailaren 26an. OSKAR MONTERO

## 20 urteko ibilbidea txalo artean agurtu du Bengoetxeak

### TTIPI-TTAPA

Etxeko, lagun, herritar eta pilotazaleen txalo, kanta, bertso eta mezu artean agurtu du Oinatz Bengoetxeak ibilbide profesionala. Agerikoa izan dira jaso dituen hurbiltasuna eta maitasuna, eta hori bada zer-baiten seinale. Otsailaren 26an Labriten egindako festan jaso

zuen aurreneko omenaldi sorta eta sorterrian ondoren, goraino bete zen frontoian. Hala ere, ez du oraindik galtza zuriak kentzeko asmorik. Urriaren 5ean beteko ditu 20 urte profesionaletan eta data horren bueltan azken partida etxean jokatu du. Bitartean, Euskal Herrian eta kanpoan ariko da.

## Leitzan komunikatuz egitasmoak parte hartze prozesua antolatu du

### TTIPI-TTAPA

Leitzan euskarazko tokiko komunikabide bat sortzeko helburua duen Leitzan komunikatuz egitasmoak aurrera jarraitzen du. Urriaren egitekoa zen parte hartze prozesua atzeratu zuten, baina berriz hartu dute esku artean.

### Lau saio

Parte hartze prozesu horren barnean, hainbat saio eginen dituzte. Martxoaren 17an informazio saioa eginen dute eta hiru hizlari gonbidatu dituzte: Iban Urdanpilleta (Tolosaldeko Ataria), Alaitz Aizpurua (Noaual) eta Igor Astibia Heikimeneko kidea.

Horren ondoren beste hiru saio eginen dituzte: martxoaren 24an diagnostikoa egin, helburua zehaztu eta izaera eta balioak adostu nahi dituzte;

apirilaren 7an proiektuaren ezaugarriak landuko dituzte eta maiatzaren 2an proiektuaren kudeaketa izanen dute hizpide. Saio guztiak Herri Aretoan izanen dira, 18:30ean.

### Helburuak

Egitasmo honen bitartez, «euskararen normalizazioan pauso bat harago» joan nahi dute bultzatzaileek, «kalitatezko informazioa helarazi» eta «herri atxikimendua areagotu».

Leitzatik Leitzara egindako proiektua izan nahi du. Alde batetik, paperean «kazetaritza pausatua» egin nahi dute, edizio digitalean «eguneroko albistek» sartu nahi dituzte eta sare sozialetan «dinamika propioak» landu nahi dituzte. «Dauden komunikabideen osagarri eta haiekin elkarlanean» ari nahi dute.



Saralegi ontziraturako taloak eskuan.

## Arro baserriko Kristina Saralegi Arribillaga zendu da 48 urterekin

### TTIPI-TTAPA

Joan da Arro baserriko alaba, ekintzaile eta langile nekazaina, askorentzat erreferente eta eredu. Leitzatik kanpo Euskal Herrian ere oso ezaguna zen baserriaren eta herri kirolen munduan egin duen lanagatik, edo Donostiako santomasetako zerria hazi dituelako hogeituzte. Oztopoak oztopo, baserriko eredu dibertsifikatuaren alde lan asko egindakoa zen, eta baserriko lana talogintzarekin uztartu zuen. Hamaika plaza eta azoketan ibili zen bere talo postuarekin, eta 2020az geroztik, ezagun egin ziren berak ontziraturako Saralegi Taloak. Urte berean, pandemia betean, Baserritik etxera dinamizatzeko mintzatu zen TTIPI-TTAPAREkin: «Sortu den egoera berri honekin ez atzera eta ez aurrera gelditu ginen eta aurrera egiteko ate bat ireki digu Baserritik etxera dinamikak. Dinamika honekin ikusi dugu eroslea etorri zain egon gabe, guk eskaini behar ditugula gure produktua». Horrekin batera, «bertakoa bultzatzearen aldeko» deia egin zuen: «bertakoa bultzatzen ez bada, baserritarrei ez bazaie laguntza ematen, hau guztia akabo da».

Otsailaren 25ean zendu zen, 48 urterekin, eta bere heriotzak gogor astindu du herria.

## Autodefentsa tailerra antolatu dute larunbat honetan

### TTIPI-TTAPA

Aste honetan izan da Emakumearen Nazioarteko Eguna eta horren harira, martxoaren 8an kontzentrazioa egiteko zen plaza zaharrean. Horrez gain, autodefentsa tailerra antolatu du Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Batzordeak, udalarekin elkarlanean. Larunbat honetan, martxoaren 12an, izango da 11:00etatik 13:00etara. Emakumei zuzenduriko jarduerak da eta izena osteguna baino lehen, martxoaren 10erako, eman behar da Sastinen. Tailerrak irauten duen bitartean haurrak zaintzeko zerbitzua ere antolatu dute eta izena ematerakoan haurraren adina eta izena eman beharko dira.

## Industrialdeko lur zati bat behar ez den materiala biltzeko

Industrialdea txukuntzeko asmoz, urrats bat egin dute berriki. Udalak eta industrialdeko enpresa batzuk lortutako adostasunari esker, udalak lur zati bat alokairuan utziko die enpresei behar ez dituzten materialak bertara eraman ditzaten.

## Ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik

Aurtengo ibilgailuen zerga ordaintzeko epea zabalik dela jakinarazi du udalak ohar bidez. Borondatez ordaintzeko epea martxoaren 1etik apirilaren 1era izanen da. Hala egin dutenek udalaren CaixaBank, Rural Kutxa eta Laboral Kutxa-kontuetan egin dezakete.

## Aste honetan hasiko da Umore Onako II. Pala Txapelketa

Gizonezkoen artean bost bikote osatu dituzte eta emakumezkoak, berriz, denak denen kontra ariko dira binaka

### TTIPI-TTAPA

Aurten, bigarren aldiz, pala txapelketa antolatu du Umore Ona elkarteak. Gizonezkoen eta emakumezkoen kategoriatan banatu dute eta ostegun eta ostiral honetan, martxoaren 10ean eta 11n, emanen diote lehiari hasiera.

Mutiletan bost bikote osatu dituzte: Mikel Huizi eta Andoni Larralde; Joseba Apezetxea eta Eneko Apezetxea; Patxi Iribarren eta Eneko Iturgollen; Xabi Zugarramurdi eta Iker Miranda; eta Fernando Goia eta Ibai Zugarramurdi.

Ligaxkan bikote guztiak denen kontra ariko dira. Horien artean, finalerdietan, aurreneko bikoteak laugarrenaren kontra jokatuko du eta bigarrenak hirugarrenaren kontra. Hortik erabakiko dute zein ariko den finalean.

Nesketan Marijo Etxeberria, Uxuri Perurena, Gorane Zabala eta Leire Iribarren apuntatu dira. Elkarren artean nahastuko jokatuko dituzte hasierako partidak, guztiak binaka. Finala jokatzeko, berriz, bikoterik parekatuenak osatuko dituzte.

## Euskal Herriko Mus Txapelketako sailkatuak Juanito eta Iban Eskudero

### TTIPI-TTAPA

Abian da XIII. Euskal Herriko Mus Txapelketa, eta herrian ere egin dute seinalea. Otsailaren 26an jokatu zuten kanporaketa eta bost bikotek eman zuten izena. Giro ederrean aritu ziren lehian eta azkenean, Portoloko Juanito eta Iban

Eskudero aita-semeak nagusitu ziren. Hala, beraiek dira martxoaren 26an Iruñean jokatuko den Nafarroako kanporaketarako sailkatu direnak. Final handia apirilaren 9an Baigorri izanen da, eta Eskudero tarrek finalerako txartela izanen dute jokoan Iruñean.



FELIX LOIARTE

## Festa giroa nagusi inauterietan

Gaztetxoan eta gazteen zahagi dantzak, mozorroen baserriz baserriko itzulia, herriko akelarrea, mozorroak, musika, otorduak... Joan den urtean huts egin ondoren, festarako gogotsu zeuden herritarrak, eta horretarako aukera ederra izan dute inauterietan.

# MAINGENEA

## Baserriko produktu ekologikoak

Elikagaiak gizarteratzen ingurugiroa zaintzen lanpostuak sortzen herri tikiak bizkortzen

Juanjo Elizalde

Goizueta · Tel.: 655 70 60 73

[www.maingenea.com](http://www.maingenea.com)





## Hiru bat astez luzatuko dira Maisueneko lanak

Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin, eskaileraz gain arrapala ere izanen da Maisuenera sartzeko


### TTIPI-TTAPA

Maisuenerako sarbideak itxura berria hartuko du laster, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin arrapala egokitzen hasi baita udala. Otsail bukaeran hasi zituzten lanak, eta Joxan Ruiz alkatearen arabera, «gutxi gorabehera hiru bat astez luzatuko dira».

Maisunean biltzen diren jubitotekako lagunek egin zioten udalari eraikineko sarrera egokitzeko proposamena, adineko sarbidea errazte aldera. Horretarako dirulaguntza eskatu zuen udalak. Toki Admi-

nistrazioko Departamentuan 22.384,42 euroko aurrekontua (BEZa kanpo) aurkeztu zuen udalak eta gobernuak 15.068,14 euroko laguntza onartu du (BEZa kanpo).

Plazatik Maisuenerako bidean dauden hasierako eskaileraren tokian, ezkerreko aldetik, hauda, paretaren aldetik, arrapala eraikiko dute. Bukaerako zatian ere ezker aldetik izanen du arrapalak segida. Hortaz, obra hauek egin ondoren ere, eskailerak hor mantenduko dituzte. Irisgarritasuna hobetzeko bidean beste pauso bat.



Arrapalak hartuko duen itxuraren irudia.



Otsail bukaeran hasi zituzten lanak. JOXAN RUIZ



TESTUA ETA ARGAZKIAK: OHIANA KALPARSORO

## Inauteri ederrak izan dira

Covid garaia atzean utzi nahian, eta ohiturak ez galtze aldera, otsailaren 19an inauteriak ospatu zituzten herritarrek. Ohiko ibilbidea jarraituz, goizean puxka biltzea egin zuten. Aurtengoan baserrietatik kanpo gelditu ziren, osasun neurriak zaintzeko. Zahagi dantza, berriz, herrira ailegatutakoan dantzatu zuten. Herriko gazteek antolatu zuten eta oso dibertigarria izan zen. Lerro hauen bitartez eskerrik asko beraien atarrietan ongietorria egin zutenei!

## Emakumearen Eguna dela eta hainbat ekitaldi larunbatean

Martxoaren 8ko elkarretarazte morearen ondoren, larunbat honetan, martxoaren 12an, Emakumearen Eguneko ekitaldiek jarraipena izanen dute. Larunbatean, bost eta hamar urte bitarteko haurrentzako ipuin kontaketa antolatu du Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Berdintasun Batzordeak. 17:00etan hasiko da eta *Berdintasuna maite dugulako* izenburupean egingen dute. 19:00etan, bestalde, *Zauriak* dokumentala ikusteko aukera izanen da. Eromena, gaizkiegonak eta osasun mentala ikuspegi feminista batetik lantzen duen lana da. Sufrimendu psikosoziala eta genero bizipenak uztartzen eta bederatzi emakumeren\* errealitateak barne hartzen dituen. Eguna boro-biltzeko, herriko emakumeek afaria antolatu dute.





Arizkunenea agerraldia egin zuen plataformak otsailaren 22an. UTZITAKOA

## Erdizko proiektua UGEP gisa tramitatu nahi dutela salatu du Erdiz Bizirikek

### TTIPI-TTAPA

Erdiz Bizirik plataformak salatu duenez, Magnesitas de Navarrak «2007an egin nahi zuen proiektua berreskuratzeko hainbat trikimailu eta presio erabili ditu».

Harrobiak «gure kultura, bizimodua eta etorkizuna arriskuan jartzen dituela» adierazi dute, «ez dugu horrelako proiekturik inposatzea onartuko». Duela bi urte, Magnako zuzendaritza plataformako kideekin bildu zen, «eta proiektua ez zutela Udalez Gaidiko Eragina duen Plan gisa tramitatuko erran bazuten ere, berriki jakin dugu beren benetako asmoa zein den. Gezurra eta azpijokoa baliatuz, proiektua UGEP baten bitartez tramitatu nahi dute, Baztanen egin nahi den herri galdeketaren emaitza errespetatu gabe eta Baztango Batzar Nagusia-

ren eta Baztango Udalaren erabakitzeko ahalmena deuseztatuz». Honez gain, Magnak abiatutako prozesu parte hartzailea «itxurakeria» dela salatu dute.

Honengatik, Baztango herritar eta instituzioei eskatu diete «erabakitzeko ahalmena deuseztatzen duen prozesu parte hartzaile honi boikot egitea» eta UGEParen erabilerara salatzea, Baztango Udal eta batzarrei «herri-lurrak eta erabakitzeko ahalmena defenditzea» eta «UGEParen tramitazioa geldiarazteko eskatzea» eta Nafarroako Gobernuari, berriz, «UGEParen tramitazioa bertan behera uztea eta herritarren borondatea errespetatzea». Gainera, «inposizio hau gelditzeko eginen diren mobilizazioetan» parte hartzera deitu dituzte herritar guztiak.

## Saharako haurrak udan hartzeko familien bila

Interesatuak apirilaren 15a baino lehen deitu beharko dute izena emateko

### TTIPI-TTAPA

Oporrak bakean bizi ditzaten, Saharaztan Baztan-Bidasoko elkarteak haur sahararrak ekartzen ditu eskualdera udan urtero. Azken urteetan ezinezkoa izan da, pandemia egoeragatik, baina aurten ekimena berrartzeko asmoa du. Hortaz,

haur hauek etxean hartzeko prest dauden familiak bilatzen ari da. Interesatuak apirilaren 15a baino lehen deitu beharko dute izena emateko, hurrengo zerbakiatar: Baztanen 685 781 683 (Mertxe), Bortzirietan 646 431 435 (Lupe) eta Maleurrekan 635 599 306 (Mixel).



UTZITAKOA

## Inauteriak Beartzunen 25 urteren ondotik

Beartzungo gazteek inauteriak ospatu dituzte auzoan lehenbiziko aldiz 25 urtetan. 15 gazte elkartu ziren goizean Etxeberrin gosaltzeko, eta handik abiatuta baserri baserri ibili ziren, Elizalde ahizpen musikaz lagunduak. Eguna borobiltzeko, herrira jaitsi ziren afaltzera. «Primeran» atera zen dena.

**Husqvarna**  
DISTRIBUIDOR OFICIAL

**BB BLOK BAT**  
TALLERES [biokbat.com](http://biokbat.com)

C/ Santiago 85 ELIZONDO 948 580 898

**ANZABAL**  
inmobiliaria

- Inmobiliaria  
Baserri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala  
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804  
[anzabal@anzabal.com](mailto:anzabal@anzabal.com) • [www.anzabal.com](http://www.anzabal.com)





Baztango haurrek Orakunde ospatu zuten otsailean. ONDIKOL ETA MAITANE MARITORENA

## Orakunde eguna ospatu dute haurrek

Otsaileko azken astean Orakunde eguna ospatu zuten Baztango herrietan, ia normaltasun osoz. Etxez etxe eskean ibili ziren batzuk, jostatzen eta bazkaltzen bertze batzuk, egurrezko ezpatak atera zituzten oilarraren jokoan aritzeko... Ederki gozatu zuten bailarako haurrek.

## Errekak hizpide Miel Mari Elosegirekin martxoaren 17an Arizkunenean

### TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak *Errekak bizi iturri... agortzen?* solasaldia antolatu du martxoaren 17an, 19:00etan, Arizkunenean. Miel Mari Elosegi Leitzako mendizain, biologo eta ingurugiro tekinkariak emanen du mintzaldia.

### Errekak solasgai

«Azkeneko urteetan mendietako erreka eta iturburuei buruzko kezka pizten ari da herritarren artean. Iturburuak eta erreka agortzen ari ote diren euri gutiago egiten due-

lako, edo egiten duen euria desberdin egiten duelako... Aldi berean, uraren kontsumoa goiti doala iduri du, eta ur hori mendietako erreketatik hartzen da. Kezka horiek kontuan hartuta eta erreken ekosistemak bizitzarendako duen garrantzia ikusita, Miel Mari Elosegi 'Luze' mendizain eta biologoarekin mintzaldia antolatu du Baztango Talde Ekosozialak. Krisi ekologiko eta klimatiko garai honetan gure inguruan gertatzen ari diren aldaketak ulertzeko eta horietarat egokitzeke».



Saioa Jaurena, Espainiako selekzioarekin jokatutako partida batean. ARTXIBOKOA

## Saioa Jaurenak errugbia utzi du

Leitzan bizi den errugbilari elizondoarrak kirol profesionala utzi du 33 urterekin. Baztanen hasi zuen bere ibilbidea, eta Iruñean eta Getxon jokatu ondotik Espainiako selekzioarekin aritu zen 2017ko Irlandako mundialean. Baionan izan da azken urteetan eta aurten ibilbide bikain horri akabaila ematea erabaki du.

**BRIKO BAZTAN, SL**

Drogeria · Garbiketa produktuk  
Ferreteria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta maletak  
Etab.

T. 608 016 052  
San Andres, 66 · NARBARTE  
(Sarrera Legasatik)

**asegi asesorías**

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

[www.zergalan.es](http://www.zergalan.es) | [zergalan@asegi.es](mailto:zergalan@asegi.es)  
[www.asegi.com](http://www.asegi.com)

Baztanberri plaza, 6  
31700 ELIZONDO  
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1  
31780 BERA  
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22  
31740 DONEZTEBE  
T. 948 450 395 · F. 948 451 304



# «Adirekin ongi pasatzea da nire helburu nagusia»

AINARA UNANUA ARIZMENDI GARTZAINDARRA

'Agility' kirola egiten du Unanua bere zakurrarekin, eta lehen postua lortu dute otsailan egin den txapelketa batean. Gainera, haurrendako Ene Kantak taldeko partaidea da gartzaindarra



Unanuek eta Adik lehen postua lortu zuten oinarritzko mailan, otsailaren 12an Kantabrialdean egindako txapelketan. UTZITAKOIA

**R. OSKARIZ** | GARTZAIN

«Irri egitea aunitz gustatzen zaion neska gartzaindarra» da Ainara Unanua Arizmendi, «kirolzalea, ameslaria, besarkadazalea, saltsero samarra... solasean hasi eta isiltzeko lanak izaten dituen». Ez da geldirik egoten denetakoa, eta gauzak berriak probatzea gustuko duenez, zakurren *agility* probak egiten hasi zen Adi bere zakurrarekin. Gainera, Ene Kantak haurrendako tal-

deko Sator Jator pertsonaiaren pamera egiten du.

**Zer da 'agility' modalitatea?**

*Agility* kirol modalitate lehiakor bat da. Gidariak zakurrarekin pista bat egin behar du oztopoak saihesten, ahal bezain fite eta garbien pasatzen. Zakurrak sokarik eta lepokorik gabe joan behar du eta ezin zaio saririk eraman pista egin bitartean. Gainera, gidariak ezin ditu oztopoak eta zakurra ukitu.

**Nola hasi zineten kirol honekin?**

Kasualitatez hasi ginen. Adi konfinamendua baino aste pare bat lehenago adoptatu nuen eta kanpora ateratzen hastean, arazo batzuk izaten hasi ginen. Mendan laxo eraman nahi nuen, baina lasterkariengana, bizikletetara... joaten zen. Laguntza eske, Usoa Urrutia hezitzailea ezagutu nuen, gaur egun gure irakasle, entrenatzaile eta laguna dena. Obedientziako

gauzatxo batzuk ikasten hasi ginen, eta *agility* probatzea proposatu zidan. Gauza berriak ezagutzea gustuko dudanez, hantxe hasi genuen abentura hau. Hasieran ez nuen batere konfiantzarik, baina Usoak argi zuen, eta gaur egun arras eskertua nago ikasi eta bizi izan dudan guztiagatik.

**Nolakoa da Adi?**

Bi urteko zakur bihurri, grazioso eta argia da. Ama border collie arrazakoa du, aita ez dakigu, baina zakur ttikiren bat izanen zen ziur. Amaren izaera hartu zuen eta beti dago lanerako prest.

**Erraz ikasi zuen?**

Egia erran nahiko fite ikasi zuen, gehienetan niri kostatzen zait berari baino gehiago [irriz]. Gainera, zer egin behar duten ikasteen, zakurrak gustura ibiltzen dira. Lehenbizi tuneletik pasatzen irakasten zaie, saritzat janaria erabiliz. Adiri aunitz gustatu zitzaion, eta lanerako gogorik ez duenean tuneletan ibiltzen da jostetan. Hala ere, orokorrean langile fina da eta arras ongi pasatzen dugu elkarrekin.

**Aunitz entrenatzen zarete?**

Astean bi egunez entrenatzen saiatzen naiz, baina beti ez dugu lortzen. Mutiloako Beloaran Txakur Eskolan entrenatzen gara. Ez da erraza zakurrarekin bueltaka ibiltzea eta aunitzetan ordutegiek ez dute laguntzen, baina horrelakoetan etxean egiten ditugu zenbait ariketa.

**Zakurraren gidariak ardura handia du probatan?**

Bai, alimalekoa. Talde lana da eta gehienetan zakurrak gaizki egiten badu, gidariaren akatsa izaten da. Txapelketetan zazpi minutu izaten dira pista ikusi eta ikasteko. Buel-taka ibiltzen gara, zakurrarekin hobekien nola egin imajinatuz. Denbora agortzean, zakurraren bila joan eta aukera bakarra dugu pista egiteko.

**Kantabrialdean otsailan egindako lehiaketan lehen postua lortu duzue...**



Bai, ez nintzen esperantza aunitzekin joan, baina gure lana egitera atera ginen. Ni lasai nitzen, eta Adi lanerako gogoz, eta horrek lagundu zigun. Galtzeko deus ez genuenez, gure hoberena ematera atera ginen eta hara non Adik pista on bat oparitu zidan. Oinarrizko mailan gaudenez, helburu xumeak ditugu, ez podiumera igotzea; Adirendako nik baimena eman arte geldirik mantentzea eta niretako aginduak garbi ematea. Hala ere, irabazteak aitzinerat egiteko animatzen gaitu.

#### **Edozeinek egin dezake kirol hau?**

Bai doike! Egia da zakurrak oinarrizko obediencia izan behar duela, esertzea edota geldirik egotea, baina *agilyti*-ko gauzak guttina ikasten dira, bai zakurrak baita gidariak ere. Hobe zakurra gazterik hasten bada, pertsonekin pasatzen den bezala, adin batetik goiti lesio eta osasun arazo arrisku handiagoa baita. Beti ere zentzuz jokatu, kirola egiterakoan guretako hartzen ditugun jarraibideak hartu behar dira zakurrendako ere.

#### **Helburu zehatzik baduzue?**

Hasieratik izan dudan asmo berarekin segitzen dut; elkarrekin ikasten segitzea eta ongi pasatzea. Betitik gustatu izan zait talde kirola eta orain, bertze modu batean, talde kirolaren onenaz gozatzen ari naiz. Zati hau probestuko dut eskerrak emateko Usoa Urrutiari eromen honetan sartzea animatzeagatik; Beloaran Txakur Eskolako denei zakurren mundu hau ezagutarazteagatik eta CD Indarkan klubari beraiekin lehiazteko aukera emateagatik, pistan eta pistatik kanpo gozatu ederra hartzen ari baikara elkarrekin.

#### **Honez gain, Ene Kantak hurrendako taldeko kidea ere bazara.**

Bai, Ene Kantak taldeko kide izateko zortea dut eta Sator Jator dut lagunik hurbilena. Ezagunak dira taldearen abesbiak eta oholtzan egindako



Sator Jator da Unanueren pertsonaia Ene Kantak saioan. UTZITAKOIA

lanak, baina nik telebistarako, ETB3rako egiten den programan parte hartzen dut. Pena da, inguruko jende aunitzek ezin baitu gure lana ikusi. Tamalgarria da Nafarroa egiten den lan bat Nafarroa osoan ez ikustea, batez ere hurrendako dagoen edukia ugariegia ez delako, alderantziz baizik.

#### **Nola sartu zinen taldean?**

Gaurgero hirugarren denboraldia dut Ene Kantak taldeko kide naizela. Jon Barberena zenari esker sartu nintzen taldean. Bera ere, egiten zituen bertze mila gauzen artean, Ene Kantak-eko kide baitzen. Arras eskertua nago nire izena eman zuelako eta berari esker hiru denboraldi gogor baina zoragarri bizitzen ari naizelako.

«ARRAS ESKERTUA  
NAGO IKASI ETA  
BIZI DUDAN  
GUZTIAGATIK»

#### **Lan handia suposatzen du?**

Astelehenetik ortziratera aritzen gara lanean: gidoiak hartu, ikasi, entseatu eta grabatu... hau izaten da guti goiti-beheiti behin eta berriz errepikatzen duguna. Grabaketak batzuetan platoan egiten ditugu, bertze batzuetan eskoletan. Telebistan pertsonaiak bakarrik ikusten dira, baina gibeletik kristoren lantaldea dago eta kameraren gibeletako lana zein garrantzitsua den atzentzen dugu maiz.

#### **Leku aunitzetan ibili zarete?**

Aitzineko denboraldian, pandemiaren erruz, ezin izan ginen eskoletara hurbildu eta horregatik Euskal Herriko hainbat museo eta lekutan ibili ginen, baina bueltan gara

«HELDUTASUNERA  
AILEGATZEAN  
BALIO BATZUK  
ATZENTZEN DITUGU»

berriz eskoletan. Hilabetean behin, aste oso batean, Euskal Herriko eskoletan ibiltzen gara eta hor sentitzen dugu haurren berotasuna. Platoko lana erosoagoa da, baina eskoletan hurrengandik hartzen denak ez du parekorik.

#### **Garrantzitsua da hurrendako euskarazko edukiak sortzea?**

Dudarik gabe! Gaur egun, Internetekin hain eskura ditugun bideo eta eduki gehienak erdaraz izaten dira eta haurrek, azkenean, bertan ikusitakoa islatzen dute. Jolasak erdaraz egiten dituzte, dituzten eredu horiek imitatuz. Horregatik, eredu, abesti edo bertze edozein eduki euskaraz hartzen badituzte, haiek ere euskaraz bizitzera errazago ohituko dira, eta ez dute hain erraz atzenuko.

#### **Kantekin balioak ere transmititzen dituzue...**

Saiatzen gara balioak eta eraguztietako gaiak haurren ikuspuntutik lantzen. Horretarako, lehen aipatutako kamera gibeletako lantalde horren parte ditugu gidoiariak, adibidez, gai hauek ahalik eta hobekien azaldu ahal izateko. Egia erran, haiei esker eta Sator Jatorrekin, berriz ere haurtzarora bidaiatu egiten dut kasik egunero. Honi esker, nik ere balioak, transmititzeaz gain, hartu egiten ditut, heldutasunera ailegatzen garen gauza batzuk atzentzen baititugu. Aunitzetan, nahiz eta teoria zein den jakin, ez dugu praktikan jartzen.

#### **Zer da lan honetatik gehien gus-tatzen zaizuna?**

Euskaraz lan egitea, aktore lana, lantaldea, haurrek ematen duten berotasun eta energia... Ez da erraza gauza bakarra aukeratzea.

#### **Etorkizunera begira, zein asmo dituzu?**

Ez zait gustatzen etorkizunera sobera begiratzea, baina zerbait erratekotan, etorkizunean zoriontsu izatea da nire helburua; euskara lagun, Adi eta zakurrak ondoan, kirola egiten... ahal dela Baztanen eta hurbileko jendearen berotasunarekin.





Ortzirale arratsaldean haurrek desfilea egin zuten Ikastolatik plazara. ONDIKOL

## Musikaz eta kolorez bete dituzte Elizondoko karrikak inauterietan

### TTIPI-TTAPA

Joan den urtean inauteririk gabe egon ondotik, gogotsu ospatu dituzte aurtengo inauteriak elizondoarrek.

Ortzirale goizean hasi ziren, gazteen puska biltzearekin. Arratsaldean haurren txanda izan zen, bi ikastetxeetako ikasleek beheitiko karrika mo-

zorroz bete zuten eta merienda hartu zuten plazan. Ilunabarrean, berriz, danborsoinuak aditu ziren herri guzian barna. Bestak larunbat goizean segitu zuen, ohikoa den kuadrillen desfilearekin. Era guzietako mozerroak aurkeztu zituzten, Santiago Karrika jendez betetzen aspaldiko partez.



## 'Herri Antolamendua Herri Hezitzailearen ikuspegitik' jardunaldia Lekarozen

### TTIPI-TTAPA

Oinherrik eta Hiritik At ekimenak proiektu berri bat sortu dute «hezkuntza eta hirigintza elkartu eta herriak antolatzeke eredu berri bat osatuz». Urtebeteko lanketa kolektibo horren emaitza izan da *Herri Antolamendua Herri*

*Hezitzailearen ikuspegitik* izeneko liburuxka, eta «bertan jasotakoaren inguruan hausnartzeko» eta «proposatutakoaren norabidean jada gauzatzen ari diren esperientziak ezagutzera emateko» antolatu dute jardunaldia, Udalbiltzaren babesarekin.

### Egun osoko egitaraua

Martxoaren 26an izanen da jardunaldia, Lekarozko interpretazio zentroan. 09:30ean ongietorria eta liburuxkaren aurkezpena egingen dute. 10:00etan hiru hirigintza proiekturen testigantzak adituko dituzte eta ordu erdiko atsedendialdiaren ondotik, Denis Najmanovich argentinar antropologoa solastatuko da 12:00etan. 14:00etan bazkaria

eginen dute eta 15:30ean solastatutakoa praktikara eramanez dute mahai-inguru baten bitartez. 17:30ean emanen diote akabaila jardunaldiari.

Parte hartzeko aitzinetik izena ematea beharrezkoa izanen da, [herrihezitzailea.eus](http://herrihezitzailea.eus) webguneko galdetegia beteta. Herri Hezitzaileen Sareko partaideek 20 euro ordaindu beharko dituzte, bertzeek 50.

# OTEIZA

ARKITEKTOAK

665 71 56 96 - 943 42 52 43

[www.oteizaarquitectos.com](http://www.oteizaarquitectos.com)

Apote Karrika 8 (Maskonea)  
31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE  
20004 - Donostia

@oteizaarquitectos

DESIGNER  
CERTIFIED  
PASSIVE HOUSE  
DESIGNER

## CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE

**abokatua**

Dibortzioak, herentziak,  
alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818

Santiago, 59 2C ELIZONDO

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ

T. 948 452 143 · 948 452 449

info@harrilan.com www.harrilan.com

HARRI LAN S.L.  
SERVICIO DE PROYECTOS

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE





Bidezainen etxeetan egiten ari dira birgaitze lanak. UTZITAKOIA

## Nasuvinsak lau pisu etxebizitza sozial bihurtuko ditu Oronoz-Mugairin

### TTIPI-TTAPA

Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak proiektua berria abiatu du Oronoz-Mugairiko Bidezainen etxeetan. Nasuvinsak lau etxebizitza birgaitzeko lanak hasi ditu Martin Urrutia Karrikan, eta 305.000 euroko inbertsioa egingen dute. Etxeen barnealdeak egokitu eta zaharberrituko dituzte, lau pisuetatik bortz pisuetara zabalduz. Etxebizitza hauen helburua bazterketa arriskuan dauden pertsonak hartzea izanen da.

Lanak Varazdin Empresa de Inserción Sociolaboral enpresari esleitu dizkio Nasuvinsak eta 152 eguneko epea dute egiteko. Lehenbiziko eta bigarren solairuko bi etxebizitza birgaituko dituzte, eta bigarren solairuko espazioa birbana-

tuko dute hiru etxebizitza egin ahal izateko bertan.

Lehen solairuko etxebizitzak 89,71 metro kuadro izanen dituzte, atondo, egongela, sukalde, hiru logela, bi bainugela eta balkoiarekin. Bigarren solairuan, berriz, batek 66,40 metro karratuko azalera izanen du, hiru kuadroko eta bi bainugelekin. Bertze biak, berriz, 55,70 eta 55,20 metro kuadro izanen dituzte, bi logela eta bainugela bakararekin.

Bortz etxebizitzak eragin-kortasun energetiko altukoak izanen dira, fatxadaren eta paretan isolamendu termikoari esker. Iturgintza-lana, instalazioelektrikoa, kontadoreak eta telekomunikazio sarea berrituko dituzte, eta etxebizitza bakoitzari aerotermita bidezko berogailu sistema berria eta ur horniketa paratuko diote.



Jendetza bildu zen herriko plazan Ricardo eta Javier Zabalza oroitzeko. ONDIKOL

## Zabalza anaiak omendu dituzte Erratzun

Frankistek fusilatutako Javier eta Ricardo Zabalza Elorga omentzeko hainbat herritar bildu ziren otsailaren 26an haien sorterrian. Baztango eta Erratzuko alkateak solastatu ziren, herriko gazteek dantzatu zuten eta Abel Zabalzak, Ricardoren semeak, gereziondo bat landatu zuen, aitak eskatu bezala.

**ZIGA**  
ELEKTRIZITATEA

**647 77 31 33**

Eguzki plaken instalazioak,  
argiztapen-azterketak  
eta elektrizitate lanak orokorrean





## Lehen eta orai ihauteriak beti ihauteri

Aldaketa franko izan badituzte ere gogotsu ospatu dituzte aurten ere ihauteriak gazteek eta hurrek

### MARIFA ETA KORO

Aldaketa franko izan dituzte ihauteriek gure herrian, batez ere konparatzen baditugu gaur egun 80-90 urte dituzten herritarrek bizitu zituzten haiekin.

Orduan Ortzegun Gizenetik hasten ziren ospakizunak. Egun horretan mendirat gaten ziren (Etxartea auzorat) eta han ematen zuten egun osoa, 20 borda hauek eginez: Elixondoko, Kanpondegiko, Sagar-diko, Sansineko, Barrantzeko, Pikatxarreko, Etxorgaiko, Etxelekuko, Goibereko, Palazioko, Gananeke, Mendiondoko, Etxenikako, Gaztainaldeko, Antonen gaineko, Antonen beitiko, Exkuto, Kaminoko, Plaxako eta Pikatxarreko. Azken honetan egiten zuten bazkaria eta honat ere hurbiltzen ziren auzoko neskek, dantzatzerat.

Igande arratsaldean plazan dantza egiten zen, maskaratu gabe.

Astelehenean Madarian hasi eta Laputsegariaraino gaten ziren, hau da, muga guztia kurrituz, eta Sarako baserri

batzuetan ere sartuz. Egun honetan 25 baserri egiten zituzten: Etxeaundiko, Iriarteko, Ixtilarteko, Errotaxar, Oieriko, Narkoneko, Domiteneko, Malastako, Kataleneko, Sastarreneko, Xuteiko, Palazioko, Haizpeko, Salaberriko, Bereko benta, Dendaldeiko benta, Mantteneko, Gaineko benta, Etxeberriko, Galtzagorritegia, Marien benta, Lori benta, Etxeberria, Zorri benta eta Laput-sagaraia.

Asteartean Alkerdi guztia kurritzen zuten: Odia, Etxelekua, Berraberria, Xokonea, Maltzatenea, Martikonea, Iturria, Etxotoa, Alzualde berea, Alzualde gainea, Urdaintz, Iruingo borda, Azkain, Miura, Xelain berea, Xelain gainea, eta Zelaita. Eta ondotik herriko etxeak eginik finitzen zituzten ihauteriak.

Elkartzeko tenorea goizeko zortzietan izaten zuten, Herrekutxean, eta han baratxuri-zopahartu ondotik, abiatzen ziren, oinez, bixtan da.

Orduan ez zen gaur egungo gisan maskaratzen, baina modu berezi batean janzen ziren:



1955ko ihauterietan Bereko Bentan eta aurtengoetan Mendiondoko bordan.

galtza xuri-xingolatu eta kroskoilekin apaindua, eta kapelu gorria modu berean apaindua. Garai haietan bakarrik gizonzkoak ibiltzen ziren eta, hauek ere, behin ezkontuta, uzten zioten eskean ibiltzeari. Neskendako, berriz, besta bakarra plazan egiten zen dantzaldia zen.

Garai haietan, eta aunitz urtez, akordeoilari bera izan zuten: Lekarozko Manolo Iturriria, berriki zendua. Aldatu ez dena, eskaria egiteko kanta da: «Ihaute-ihaute, zingarra

ta arroltze. Bat edo bertze, biak edo bat, biak edo bat».

### Aurtengoak bikain

Aurtengo ihauterietarat itzulirik, larunbatean izan genuen egun haundiena. Gazteak mendian ibili ziren eta arratsaldean herrian barna. Adin batekoak berriz, maskaratu eta bazkari batean elkartu ziren. Hurrek ttikitatik ikasten dute, eskoletan ere ospatzen baitute ihauteriak. Herriak txandatu, aurten Urdazubin egitea tokatzen zen.

VENTA PEIO  
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera  
BEHOBIA 20305 Irun  
LUZAIDE 31660 Luzaide  
DANTXARINEA 31712 Urdax

EGUNERO IREKIA,  
ASTELEHENETIK  
IGANDERA ARTE  
\*Abenduaren 25' eta utarrilaren 31'ean ezak

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800

TTIPI-TTAPA  
SARE SOZIALETAN

facebook  
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Jarrai gaitzazu!



# URDAZUBI



Gazteek igandean eta astelehenean egin zuten itzulia. ARANTXA ETA IRAIA



Haurrak, berriz, astelehenean eta asteartean ibili ziren. ARANTXA ETA IRAIA

## Ihauteriak ederki ospatu dituzte aurten haur, gazte eta helduek

### ARANTXA ETA IRAIA

Urte luze batez esperoan egon ondotik aurten bertze herri anitzetan bezala Urdazubian ere ihauteriak ospatu dituzte herriko gazteek. Honela, gazteek igande eta astelehenean

egin zuten bentetako, baseri auzoetako eta herriko itzulia eta haurrek astelehen eta asteartean egin zuten beraien buelta. Urte bateko ixiltasunaren ondotik trikiti doinuak entzun ziren berriz herrian.

# BAZTAN-BIDASOA



Joan den urtean Lesakan bunkerra berreskuratzen egindako auzolana. ARTXIBOKOA

## Hormigoizko mugak proiektua aurkeztu du Gobernuak

Lan hau erregimen frankistak lan behartuekin mugan eraikiarazitako bunkerretan oinarritzen da

### TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok Hormigoizko Mugak proiektua aurkeztu zien martxoaren 1ean mendialdeko bailare-tako alkate talde bati. Lana departamentuan garatzen ari da Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren zein Memoriaren Nafarroako Institutuaren bidez.

Hormigoizko Mugek erregimen frankistaren adierazpen errepresiboetako batera hurbiltzen gaitu: lan bortxatua.

Francoren erregimena babes-teko hainbat bunker eraiki zituzten mugan.

Gainera, Nafarroako Memoriaren Institutuak eta Nafarroako Gazteriaren Institutuak 2016. urteaz geroztik antolatzen dituzten gazteen boluntario-tzako esparruen bidez landu da proiektua, tartean Beran, Lesakan eta Erratzun. Horiei esker, errealitate historiko traumatikoaren ezagutza zabaldu da gazteen artean. Gisa honetara, bunkerrak giza eskubideen urraketa prozesuei buruzko hausnarketa kritikorako gune bihurtu dira.

**Montxo**  
JATETXEA • ERRETEGIA  
@asadormontxo

*Etxekoak berriz bueltan*

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- RAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21

**ola**  
SAGARDOTEGIA  
www.olasagardotegia.eus

- Bertako sagarrarekin egindako sagardoa - Euskal Sagardoa
- Sagardo ekologikoa
- Sagardotegiko menua
- Asteartetik larunbatera afariak, larunbat eta igandeetan bazkariak

102 Meaka auzoa • 20304 IRUN • T.943 623 130

**BERRI S.L.**  
**TXIMISTINDAR**  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zalain Ind., 42 | BERA | T. 948 63 14 52 | 639 60 80 34 | 639 56 59 65





Gazteen desfilea txarangaren ondotik. GANEX



Zazpiak Bat taldeko dantzariak dantza politak egin zituzten. GANEX

## Giro ederrean eta jende ainitzekin joan dira ihauteriak

Zanpantzar jujatu eta erre zuten eta 180 bat lagunek parte hartu zuten Lur Berriko bazkarian

### GANEX

Sarako ihauteriak iragan ziren otsaileko hondarreko asteburuan. Larunbatean gazteria auzoetan ibili da etxez etxe mozorrotuak. Igandean haurrak eta gazteak ongi mozorrotuak ibili ziren. Gazteen etxetik abiatuta egin zuten desfilea, txarangaren ondotik. Erakusketa batzuk ere egin zituzten. Zazpiak Bat dantza taldeko dantzari ttiki eta haundiek egin zituzten dantza polit batzuk. Nola ez, Zanpantzar jujatu eta erre zuten. Bazen

jende ainitz herriko karrketan eta erran behar da aro ederra zela.

Ondotik, Lur Berri gelan bazkaria egin zuten. Aipatzekoa da sukaldariak egindako lana. Horien artean zegoen Atxuri Arteko Arnaud margo-laria ere, eltzekaria egiten. 180 bat lagunek parte hartu zuten eta izugarrizko umore onean pasatu dute. euskal kantu eder batzuk eman zituzten eta musikariak ere ongi airostu zuten egun hori. Hurrengo urtera arte!



Zanpantzar jujatu ondotik erre egin zuten. GANEX



180 lagun elkartu ziren Lur Berriko bazkarian. GANEX

## Sara Korrika Trail martxoaren 26an eta 27ko bi probekin iraganen da

### GANEX

Sara Korrika trail kirol probaren hamabosgarren edizioa iraganen da martxoaren 26an eta 27an, Sara Korrika taldeak antolatuta. Hilabeteko azken larunbatean Sara Korrika Duathlon proba egingen dute, 14:30ean abiatuta. Hogei kilometroko lehen zatia mendiko bizikletan egingen dute

kirolariak eta hamar kilometroko bigarrena trail. Bakarka nahiz txandaka, binaka, egin daiteke eta parte hartzeko hamasei urte beteakizan behar dira.

Igandean 09:00etan abiatuta Sara Korrika Trail handia egingen dute korrikalariak, 22 kilometroko ibilbidea eta 1.600 metroko desnibela gaindituz.



Korrika Trail lasterketak kirolari aunitz ekarriko ditu aurten ere. PIERRE EZKURRA





Jose Cazaubon, Sarako Herriko Etxean denbora osoz ari da martxo hasieratik. ARANTXA AGIRRE

## «Saran euskaraz bizi ahal izatea da nire erronkarik handiena»

**JOSE CAZAUBON** SARA KO KULTURA, ANIMAZIO ETA HIZKUNTZA POLITIKA KARGUDUNA

Sarako biziari lotuak diren arlo anitzetan murgilduak dauden saratar belaunald guziekin harremanetan da Jose Cazaubon herriko etxeak sortu duen lanpostu berrian hasi denetik

### **AITOR AROTZENA** SARA

Urte hasieratik Arrangoitzeko Jose Cazaubon da Sarako Herriko Etxeko kultura, animazio eta hizkuntza politika karguduna. Lehen bi hilabeteetan denbora erdiz aritu da, baina martxotik landa denbora osoz ariko da herriko etxean. 1982. urtean sortua Arrangoitzen, maiatzean 40 urte beteko ditu eta betidanik Arrangoitzen bizi izan da, nahiz eta Sararekin eta saratarrekin harreman handia izan duen beti.

**Kultura munduarekin lotura handia duzu, dantzaria, musikaria... Zertan aritua zara?**

Hogei urtez dantzatik bizi izan naiz (Euskal Dantzarien Biltzarra EDBko langilea hiru

urtez, aldizka dantzari ha- maika urtez, azken urteak autonomo). Dantza herrikoia erakutsi izan dut taldeetan eta eskoletan, sorkuntzak egin ditut, ZpeizMukaki dantza taldeko sortzaileetarikoa izan naiz eta dantzaldiak, pastoralak, maskaradak... hainbat dantza esparrutan lanean aritu izan naiz. Baina herriko besta komitean ere ibilia naiz, gaztetxeetan, EHZ festibale-

**«KULTUR-ALTXORRA GAZTEEI TRANSMITITU BEHAR DIEGU»**

ko arduraduna izan naiz zortzi urtez, Hats Berri kultur elkarteko lehendakariordea, Usopop festibalaren laguntzaile...

**Eta orain Sarako Herriko Etxeko kultura, animazio eta hizkuntza politika karguduna...**

Urtarrilaren 3an hasi nintzen Sarako Herriko Etxearentzat lan honetan, hasieran denbora erdiz, oraindik dantza inguruan lana izan dudalako eta

**«BIZIAREN AKTORE IZATEN SEGITZEA NAHI NUKE ETA EZ KONTSUMITZAILE»**

martxo hasieran hasi naiz denbora osoz. Sarako Herriko Etxeak sortu duen lanpostu berri bat da eta hasiera dinamikoak izan da. Lankideak bikainak dira eta harrera ederra egin didate.

**Lanbide berri honetan zein dira zure betebeharrak edo lanik handienak?**

Euskara teknikari bezala, euskararen presentzia segurtatzea eta azkartzea nahi nuke Sarako herrian. Elkarrekin animazioak, tailerrak eta kursoak prestatzeko behar dituzten medioak kudeatuko ditut: gelak erreserbatu, bideak autoei itxi, materialaren eskaera, komunikazioa, edariaren salmenta eskaera... koordinaketa lana egingen dut. Sarako animazio batzuk ere antolatuko ditut: merkatua, liburuen biltzarra, kontrabandisten eguna... eta sentsibilizazio lana egingen dut, bereziki haurrei begira: Sarako ondareari buruz, pilota, ihizia...; baita prebentzio lana ere.

**Nola ikusten duzu Sarako kulturaren egoera? Nahikoa kultur egitarau zabala bada zure ustez? Hutsuneren bat ikusten duzu? Possibile balitz, zer gustatuko litzazuke gehitzea?**

Sarako biziari lotuak diren arlo anitzetan murgilduak dauden saratar belaunaldi guziekin harremanetan naiz. Covida dela eta, moldatu izan behar dugu zonbait alditan... Adibidez, bazkariak adineko pertsonen etxera eraman behar izan ditut, eta esperientzia polita eta aberasgarria izan da! Kultura aberatsa duen herria. Saran gauza aintz bada: nortasuna, ohitura zaharrak (pilota, ihizia, dantza...), laborantza, historia aberatsa, kontrabanda, lezeak, Larhun, euskara bizia... Segurtatu behar dugu altxor hori belaunaldi gazteari transmititzea. **Zein da zure helburu edo erronka nagusia?**

Saran euskaraz bizi ahal izatea. Saratarrek biziaren aktore izaten segitzea nahi nuke eta ez kontsumitzaile.

## Lau mendi lasterketa asteburu honetan

Lehen aldikoz larunbatean 80 kilometroko proba antolatu dute eta igandean 10. Senpereko Trail iraganen da

### JEAN LOUIS BESSONART

Azkenean, bi urteko geldialdiaren ondotik, Senpereko Trail arrakastatsua abian da, modurik azkarrenean. Lau lehia-keta aurkeztu dituzte larunbat eta igande honetan, martxoaren 12an eta 13an, iraganen diren hitzorduetara.

### Larunbatean 80, 42 eta 10 kilometroko lasterketak

Larunbatean, 05:00etan abiatuko da lehen aldikoz antolatu duten Tontorrez tontor ultra trail lasterketa. 80 kilometroko proba da, 5.600 metroko desnibelarekin. Denok ulertu dugu goi mailako lasterkariei zabaldua dela.

Geroxeago, 09:00etan, Gotorlekuen itzulia hasiko da, 42 kilometroko distantzia, 2.800 metroko desnibela eta Larhongo gotorlekuen gaindi pasako

den lasterketa. Hau ere ohitura dutenei edekia da.

Berantago, 11:00etan, Ibar Run trail lasterketak hartuko du lekukoa, 10 kilometro eta 330 metroko desnibel positiboarekin, hau amaturrendako.

### Igandean Senpereko Trail

Igande goizean, 09:00etan abiatuko da Senpereko Trail ezagunaren 10. edizioa. 21 kilometro eta 1.050 metroko desnibela ditu mendi lasterkari ugari biltzen dituen probak. Oinezkoak ere ez dira ahanziak, eta bi ibilbide proposatuak dira lagunartean edo familian gozatzeko: 16 edo 9 kilometrokoak.

Negutik ateratzean lehenbiziko mendi lasterketak dira eta kirolariek azkar nahi dute hasi beren denboraldia. Hau idaztean, 2.000 kidezik goitik izena emana zuten.

## Bertsu saioa igandean goi mailako bertsulariekin

### JL BESSONART

Joan den aldizkarian aipagai genuen, baina datorren ikusgarria berriz oroitaraztea onuragarri zaigu. Sekulako bertsu ekitaldia antola du Herri Urrats elkarteak, urtero errepikatzen dena Larreko kultur gunean BECtso saioa izenburuarekin.

Maiatzaren 8aren aitzin ekimen andana plazaratuak dira herri ainitzetan, eta helburua kulturaren bitartez dirulaguntza batzuen eskuratzea izaten da. Beraz, igandean, martxoaren 13an, *Hitzetik Urratera* lemarekin, goi mailako ber-

tsulariak ikusiko ditugu Larrekon, 16:00etan: Miren Arretxe, Odei Barroso, Saioa Alkaiza, Eneko Lazkoz, Nerea Ibarzabal eta Jone Uria. Ipar Euskal Herriko bi finalistak, Nafarroako bi finalistak eta Bizkaiko bi finalistak dira.

Dudarik gabe beren hobere-na emanen dute besta giro goxo batean, hutsezina bertsuzaleendako baita bertsuak sortzen duen ikusminagatik ere.

Sartzeak hamar eurotan salgai daude, [www.herriurrats.eus](http://www.herriurrats.eus) webgunean, baita Larreko gelako sarreran bertan ere.

## Martxoaren 19an poesia errezitaldia Larrekon

### TTIPI-TTAPA

Edmond Rostanden poemak esku artean, Jaques Mougenotek poema errezitaldia egingen du martxoaren 19an, larunbata, Larreko kultur gunean. 19:30ean hasiko da eta sartzeak zazpi euro ordaindu beharko dira.

## Antzerkia martxoaren 24an Larrekon

### TTIPI-TTAPA

Kultur agendari segida emanez, martxoaren 24an *Cid-a dino-sauro laranja zen* antzezlanaren egingen dute Claire Balerdi eta Jaques Nouard aktoreek Larrekon. Erdaraz da eta sartzea hamar eurotan erosi ahal izaten da.

## Azken kontzertuetan ederki gozatu dute ikusleek

### JL BESSONART

Goraipatzekoa da Landarbaso abesbatzak otsailaren 6an eman zuen kontzertua. Eliza mukuru bete zen, maluruski leku eskasagatik batzuk kanpoan gelditu ziren. Oro har, sekulako emanaldia izan zen, ikusleak xoraturik etengabeko txalo artean bukatu zen ikustaldia. Betidanik, ikuskizunek goi maila lortzen dutelarik, publikoak erantzun ona itzultzen du.

Bertze kontzertu batekin ere publikoak gozaldi ederra hartu zuen. Lehen zatian Eneko Lamothe senpenter gaztea ari-

tu zen, berak sorturiko hamar kantu euskaldun plazaratu zituen, gehienak bere sentimenduen adierazpenak. Zinez hunkigarria izan zen. Bere erreferentziak Bob Dylan eta Enaut Elorrieta dira.

Ondotik Haur Handiak taldeak hartu zuen lekukoa (*Les Grands Enfants*). Kanta gehienak erdaraz ziren, halere beren zoriona, umorea eta alegera ongi partekatu zuten. Amodiozko filosofia transmititzen dute, gaurko eguneko egoera ilunari badakite argiaren izpiak igortzen, ai zer poza!



Landarbaso abesbatza, Eneko Lamothe eta Haur Handiak kontzertuan. BESSONART



## Errigoraren kanpaina martxoaren 10ean hasiko da

TTIPI-TTAPAKO harpidedunek *ERRAN.EUS* webgunean eginen den lehiaketan parte hartuz ere eskura dezakete

### TTIPI-TTAPA

Udaberria hurbiltzearekin bat ailegatu da *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina. Martxoaren 10etik 30era bertako oliba-olio birjina estra (eta kontserba, arroz, lekale eta pasta sortak (12 unitateka) eskatu ahal izanen dira, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan. «2014an kanpaina abiatu ondotik gero eta gehiago dira kontsumitzeko erak aldatzeko hautua egin duten herritarrak eta, ondorioz, gero eta gehiago ekoizteko erak aldatzen ari

diren nafar ekoizleak, emeki, baina pauso sendoz, tokiko elikadura-sistemen alde eginenez», nabarmendu dute.

Produktuei dagokionez, berrikuntzak izanen ditu kanpainak. Lehenengoz lekale ekologikoak ere eskainiko dituzte, seina pakete dilista eta txitxirioz osatutako sortan. Olioari dagokionez, aldiz, lehenengoz, ekologikoan bi litroko bi bidoiz osaturiko sorta erosteko aukera izanen da.

Banaketa apirilaren bigarren hamabostaldian eginen dute eta, salbuespenak salbuespen,



Ekoizlearen jatorrizko prezioan eskura daitezke produktuak. UTZITAKO ARGAZKIA

produktu guztiak aldi berean jasoko dira. Eskaera egiterakoan aukeratu behar da produktuak hartzeko puntua eta bertan zehaztutako egun eta ordutegian pasa beharko da biltzera. Hain guztia auzolanean antolatzen da. Hain zuzen, herriz herri informazioa zabaltzen, eskaerak bideratzen eta produktuak biltegitratu eta banatzen ari direnen lan boluntarioari esker, norbere herrian jaso daitezke produk-

tuak ekoizlearen jatorrizko prezioan.

### Harpidedunen artean lehiaketa

TTIPI-TTAPAKO harpidedun diren, eta *ERRAN.EUS* atarian egindako lehiaketan parte hartzen dutenen artean Errigorako bi saski zozketatutako dira. Parte hartzaileek ongi erantzun beharko dituzte hiru galdera, eta asmatzaileen artean eginen da zozketa.



errigora.eu

**martxoak 10 - 30**

**Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura**

# Oinak lurrean



**Bete ezazu despentsa urte guztirako**



Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroz, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



eko



eko



eko



Katea Bike Team taldean ariko diren borts txirrindulariak. UTZITAKOIA

## Katea Bike Team mendi bizikletan lehiatuko da aurten

Talde berriak adin eta kategoria ugaritako borts txirrindulari izanen ditu eta Patxi Vilaren 360 enpresaren babesia

### TTIPI-TTAPA

2022ko txirrindularitza denboraldiak eskualdeko talde berri bat izanen du BTT modalitatean, Katea Bike Team, Baztan-Bidasaldeko borts txirrindularirekin osatuko dena. Junior kategorian, iaz kadete mailan hamabi garaipen lortu zituen **Eneit Bertiz Apezetxea** (Sunbilla 2005) ariko da. Nafarroako Rural Kutxaren Opean, Arazuri eta Zangozako probetan nagusitu zen, bigarren izan zen Caparrosen eta Aiegin, eta hirugarren Fiteron eta Deikaztelun. Saillkapen orokorrean bigarren izan zen. Euskadiko Opean saillkapen orokorrean lehena izan zen, Izkué, Errenteria, Irunberri, Aramaio eta Ordiziako lasterketetan irabazi ondotik. Superprestigio lehiaketan ere irabazle izan zen. Green Series txapelketan Artxandan eta Zallan irabazle

izan zen. Udazkeneko Irekian Villatuerta eta Lukingo probak irabazi zituen eta bigarren izan zen Ororbian. Nafarroako eta Euskadiko txapelketak irabazi zituen eta zortzigarren izan zen Espainiako txapelketan. **Koldo Herrera Urroz** (Sunbilla 2003) jubenil mailan lehiatu zen iaz eta aurten 23 urtez beheitikoan ariko da. 2021ean sei garaipen lortu zituen. Horietatik hiru Diario de Navarra Opean lortu zituen, Oteizan, Lodosan eta Lizarran. Euskadiko Opea irabazi zuen, Ordizian eta Urretxun lehenbizikoa, Izkuén, Errenteria eta Aramaion bigarren eta Irunberri hirugarren izan ondotik. Green Series txapelketako Bilboko proba ere irabazi zuen. Euskadiko txapelketan txapel-dunorde izan zen, laugarren Nafarroako txapelketan eta hamabigarren Espainiakoan.

**Aitor Begino Irigoien** (Igantzi 1992) elite mailan lehiatzen da. 2019an denboraldi polita osatu zuen, garaipena lortu baitzuen Lerinen, bigarren postua Urretxun, hirugarrena Balmasedan, laugarrena Aiegin eta hamargarrena Euskadiko txapelketan. 2020an omoplatoa hautsi zuen, baina halere garaipena lortu zuen Errenterian, bigarren eta Nafarroako txapel-dun izan zen Lizarran, bigarren Ororbian eta hogeigarren Valladoliden jokatutako Espainiako txapelketan. Iaz belauneko arazoak izan zituen Beginok, baina hirugarren izan zen Gorlizan eta Caparrosen eta hamargarren Euskadiko txapelketan. **Ibai Ordax Olabe** (Doneztebe 1988) master 30 kategorietan lehiatzen da, BTT maratoi eta ultramaratobietan gehienbat. Etapaka egiten diren probetan, bakarka garaipena lortu du Tranpyr proban eta binaka Half Costa Blanca proban. **Igor Agesta Agirre** da taldeko beteranoena (Sunbilla 1978). Lur orotariko kirolaria da, mendi bizikleta probetan ez ezik, mendiko duatloietan, ultrafondo probetan, mendiko eta asfaltoko lasterketan, eskian edo eskaladan ere lehiatzen baita.



Umoro Onako Garmendia eta Salaberria.

## Nafarroako Kirol Jokoetako pilotari batzuk txapel-dun eta finalista

### TTIPI-TTAPA

Otsailaren 18an eta 19an Labriten jokatu zituzten Nafarroako Kirol Jokoetako benjaminen, alebinen eta haurren mailako finaletan eskualdeko zenbait pilotari izan ziren.

**Haurren kategorian**, jokatutako bi finaletan ez zuten txapelik lortu eskualdeko pilotariek. **Lehen mailako finalean**, Lesakako Arkupeak klubeko Otxandorena-Bereau bikoteak 18 eta 9 galdu zuen San Miguel taldeko pilotarien kontra. **Bigarren mailako finalean**, berriz, Atarrabiko bikotea 18 eta 10 nagusitu zitzaion Leitzako Aurrera klubeko Zabaleta eta Alkortari.

**Alebinen 1. mailan** eskualdera etorri zen txapela. Erreka elkarteko Ezkurra-Leiza bikotea 18 eta 4 gailendu zen Obereko bikotearen kontra. **Alebinen 2. mailan**, Goizuetako Umoro Ona elkarteko Garmendia-Salaberria bikoteak, 18 eta 11 irabazi zion Lesakako Arkupeak elkarteko Irigoien-Magaña bikoteari.

**Benjaminen 3. mailako** buruz buruko finalean Umoro Onako Elizegik irabazi zion Aurrerako Zabaletari. **2. mailako finalean**, berriz, Bortziarik klubeko Goñik galdu egin zuen Araxes taldeko Gorostidiren kontra.





Txapelketan parte hartu duten pilotariak eta beraien amak, finalen ondotik eskainitako omenaldi beroan. UTZITAKIA

## Pilotarien amak omendu ditu Eusko Label txapelketak

Lehen mailako finalean, Zelaiak eta Lopezek 22-11 irabazi diete Iturriaga leitzarrari eta Egañari

### TTIPI-TTAPA

Madalen Etxegarai Zelaia eta Olatz Ruiz de Larramendi Lopez izan dira irabazleak emakumezkoen Eusko Label Binakako Txapelketako lehen mailan. Otsailaren 27ko finalean, Iera Agirre Iturriaga leitzarrari eta Uxue Osés Egañari 22-11 irabazita. Azkoitiko Gurea pi-

lotalekua bete egin zen finalistek eskainitako ikuskizunaz gozatzeko. Promozioan, garaipeña Goiuri Zabaleta Rodriguez leitzarrak eta Mondragon II.ak osatutako bikotearentzat izan zen, finalean Santos eta Urriazari 22-16 irabazita. Pilotari onenaren saria ere jaso zuen Goiurik.

### Omenaldia

Txapelketak iraun dituen bi hilabeteetan pilotarien amaren abizenak eraman dituzte hauen omenez. Finalen ondotik ere omenaldia jaso zuten amek, Sebastian Lizasoren bertsoekin eta pilotariak beraien dantzatutako aureskuarekin. Pilotariak erakutsi zituzten bi pankartek ere sentimendu beraren adierazle izan ziren: «Izan zirenei esker, gu ere bagera! Eskerrik asko!» zioen batek eta «Klub bat, familia bat, ilusio bera», bertzeak.

Binakako txapelketa honetan lehen mailan aritu diren pilotariak kontratuarekin jokatu dute, etorkizunerako mugarri izan daitekeen aurrerapauso bat.

## Lesakako III. Mendi Lasterketa martxoaren 13an eginen dute

### TTIPI-TTAPA

Joan den urtean ez zen egiterik izan, baina aurten, Beti Gazte elkarteko Beti Gazte Laxterka taldeak antolatutako Lesakako Mendi Lasterketaren hirugarren edizioa martxoaren 13an eginen dute. Igandean 10:00etan abiatuko da 14 kilometro luze eta 900 metroko desnibela duen lasterketa nagusia plazatik eta Frain (455 metro) eta Unanu (650 metro) igo beharko dituzte berriz ere plazan helmugaratu baino lehen.

16 urtetik goitiko korrikalariak parte har dezakete (aurten ez da Gazte Trail lasterketarik eginen) eta izenematea [herrikrosa.eus](http://herrikrosa.eus) webgunean egin zitekeen martxoaren 8ra bitarte. Lehen bi ediziotan, Joxe Amunarriz hondarribiarrak eta Hodei Lujanbio goizuetarra suertatu ziren irabazle gizasemeetan eta Idoia Maritxalar lesakarra eta Maite Karrika donostiarra emakumezkoetan.



POTRONKO



POTRONKO

## Euskal Herriko sokatira txapelketako zazpi txapeletatik sei Beti Gaztek jantzi ditu

Joan den urtean bezala, Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketako zazpi txapeletatik sei lortu ditu aurten ere Lesakako Beti Gazte taldeak. Azken biak otsail hondarreko larunbatean lortu zituzten Laukizen (Bizkaia), emakumeen 500 kiloko (ezkerrean) eta gizasemeen 560

kiloko (eskuinean) kategorietan. Honela, bitxia bada ere, gizasemeen lau kategorietan (680, 640, 600 eta 560 kilo) eta emakumeen bietan (540 eta 500) txapelak lortu izan arren, txapelketa mistoan (580 kilo) bigarren izan ziren Ibarren otsailaren 19an, etxeko taldearen ondotik.

# AGENDA

## MARTXOAK 10 - 24

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

### TAILERRAK

#### ARESO

##### Autodefentsa feminista

Udaletxean, martxoaren 12an, 11:00etatik 13:00etara.

#### ELIZONDO

##### Kantu-ireki tailerra

Eva Ugalderekin. Martxoaren 12an. Argibideak eta izen ematea: 607 82 38 78.

##### Haurrendako 'Laika beldar ausarta' Kamishibai eta tximeleta tailerra

Liburutegian, martxoaren 18an 17:00etan. Izen ematea martxoaren 17ra arte.

#### DONEZTEBE

##### Poesia tailerra

Liburutegian, martxoaren 14an, 17:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### BERA

##### Dantza taldea eta erraldoiak

Herriko etxeko plazan, martxoaren 12an, 18:00etan.

#### LEITZA

##### 'Kasilda, bukatzen ez den sua' antzerkia

Gotibera antzerki taldearekin. Herri Aretoan, martxoaren 13an, 19:00etan. Sarrerak leihatilan 8 eurotan 45 minutu lehenagotik.

#### IRURITA

##### 'Nekatutak' bakarriketa

Antton Telleriarekin. Gizarte Bilgunean, martxoaren 13an, 19:00etan.

#### SENERE

##### 'Cid-a dinosauro laranja zen' antzerkia

Claire Balerdi eta Jaques Nouard. Larrekon, martxoaren 24an, 20:30ean. Sartzeak 10 eurotan.

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDO

##### 'Indarkeria kontsumitzen dugu?'

Liburutegian, martxoaren 7tik 18ra.

##### 'Emakumeak eta zainetak. Iruñeko beste argazki bat'

Arizkunenean, martxoaren 15etik apirilaren 1era.

#### DONEZTEBE

##### 'Indarkeria kontsumitzen dugu?'

Liburutegian, martxoaren 21etik apirilaren 1era.

#### BERA

##### Oaia Perurenaren margo erakusketa

Ikastolako areto nagusian, larunbat eta igandetan 16:00etatik 20:00etara.

### MUSIKA

#### BERA

##### Vulk taldearen kontzertua

Katakun, martxoaren 11n.

#### ELIZONDO

##### Bailableak

Plazan, martxoaren 13an, 12:30ean.

##### 'Kanta herrikoiak barnetik' ikastarokoan kantaldia

Arizkunenean, martxoaren 23an, 19:00etan.

#### ANIZ

##### Baztan Kantuz

Martxoaren 20an, 12:00etan.

### ZINEMA

#### ARANO

##### 'Zauriak' dokumentala

Martxoaren 12an, 19:00etan.



#### SENERE 'Hitzetik urratsera' bertsu saioa

Ipar Euskal Herriko, Bizkaiko eta Nafarroako finalisten saioa. Larrekon, martxoaren 13an, 16:00etan. 10 eurotan 'herriurrats.eus'en.

#### ELIZONDO

##### 'Emakumeak fabrikatzen' bideo-foruma

Liburutegian, martxoaren 16an, 17:30etik 19:30era. Izen-ematea martxoaren 15era arte.

#### LESAKA

##### 'Navarra XXI Nafarroa' dokumentala

Harriondoan, martxoaren 20an 19:00etan.

#### LEITZA

##### Zinema

Bi pase. Herri Aretoan, martxoaren 19an eta 20an. 'Ilargirantz' 16:30ean, 4,5 eurotan. 'Licorice Pizza' 19:00etan, 5,5 eurotan. Sarrerak leihatilan 45 minutu lehenagotik.

### BERTSOAK

#### SENERE

##### 'Hitzetik urratsera' saioa

Larrekon, martxoaren 13an, 16:00etan. Sartzeak 10 eurotan 'www.herriurrats.eus'en.

### SOLASALDIAK

#### ARANTZA

##### Doluari buruzko hitzaldia

Ane Izagirrekin. Eskolako gimnasioan, martxoaren 11n, 16:00etan.

##### 'Aukera librearen mitoa'

Idoia Lekuerekin. Baskulan, martxoaren 16an, 18:00etan.

#### ELIZONDO

##### 'Bizi-iturri diren errekek, agortzen?'

Miel Mari Elosegirekin. Arizkunenean, martxoaren 17an, 19:00etan.

#### ZUGARRAMURDI

##### 'Miñan' liburuaren aurkezpena

Ametz Arzallusekin. Museoan, martxoaren 18an, 20:00etan.

#### DONEZTEBE

##### 'Ene baitan bizi da' liburuaren aurkezpena

Maddi Ane Txoperenarekin. Liburutegian, martxoaren 25ean.



## Nire aukera

## AZOKAK

## ELIZONDO

**Baztango artisauak eta zaporeak**

Plazan, martxoaren 12an eta 19an, 10:00etatik 14:00etara.

## BERA

**Bertako ekoizleen merkatua**

Beralandetan, martxoaren 12an 10:30etik 13:30era.

## JARDUNALDIAK

## BAZTAN

**Korrika besta**

Amaiurren eta Elizondon, martxoaren 19an.

## AMAIUR

**Mahai-jokoan kutxa ibiltaria**

Martxoaren 19an eta 20an.

## LESAKA

**Herriko dantzarien eguna**

Martxoaren 19an.

## ERREZITALDIAK

## BERA

**'Arkanbele kantak' poemak**

Mikel Taberna, Joseba Irazoki eta Oier Fuentes. *Kultur etxean*, martxoaren 10ean 19:00etan.

## ARANO

**'Berdintasuna maite dugulako' haurrentzako ipuinak**

Martxoaren 12an, 17:30ean.

## LESAKA

**Haurrentzako ipuin kontalaria**

Maite Frankorekin. *Liburutegian*, martxoaren 15ean, 17:30ean.

## SENPERE

**Edmond Rostanden poemak**

Jaques Mougnotekin. *Larrekon*, martxoaren 19an 19:30ean. *Sartzeak 7 eurotan.*

## «Mendi lasterketak tentsioa deskargatzeko balbula dira niretzat»

LEIRE BARAIBAR GARMENDIA ARESOKO LASTERKARIA



«Geldirik egoten ez dakien kirolzalea» da Leire Baraibar Garmendia (Areso, 1979). Zumaian bizi da gaur egun, eta musika entzutea eta kirola egitea ditu gustuko. Arraunean ibili izan da eta gaur egun mendi lasterketetan aritzen da, baita marka onak lortu ere.

### Pausoz pauso

Zumaia Flysch Traila izan zen bere lehenbiziko mendi lasterketa, «Zumaian bizi naiz eta bertako korrikako kuadrillatxoak parte hartu behar zuenez, probatzera animatu nintzen».

Geroztik, hainbat lasterketetan parte hartu du, nabarmen hobetu du eta garaipen bat baino gehiago lortu ditu. Otsailean, hain zuzen ere, Berastegiko Negu Trail lasterketan lehenbiziko postua

lortu zuen emakumezkoen kategorian, 16 kilometroko ibilbidean 01.46.35eko denbora lortuz, baita Zestoako Kobaz Koba Trail lasterketan ere, 25 kilometroko proban 02.42.48ko denbora eginez.

Hala ere, bere helburua maiatzean Azepeitian jokatu den Domus Teknik 40 MLK lasterketa da, 65 kilometroko Ultra Traila; «Negu trail eta beste lasterketa batzuk entrenamendu gisa jarrita dauzkat». Espero ez zituen emaitzak lortu ditu, «ez nuen pentsatzen irabaziko nituenik, baina emaitza ikusita oso gustura nago».

### Entrenatzearen garrantzia

«Konstantzia eta esfortzua» dira garaipenaren sekretua Baraibarrentzat, «alegia, tontoak baino kilometro gehiago egitea [irriz]». Pres-

tatzaileak entrenamendu plana antolatzen dio astero, «eta horren arabera egun eta ordu gehiago edo gutxiago entrenatzen naiz». Entrenamenduetarako, «inguruko mendietan» gustura ibiltzen da aresoarra.

Lasterketak eta entrenamenduak bukatzean «gustura» sentitzen da: «mendien lasterka ibiltzea tentsioak deskargatzeko balbula da niretzat». Ez du amets zehatzik kirol honetan; «egunean egunerokoa egitearekin konforme nago».

Hala ere, ez da Baraibarrek egiten duen lehen kirola, arraunean ere ibili baita bospasei urtez Orioko arraun taldean eta Getariako klubean. Bi kirolak «oso ezberdinak» direla adierazi digu, baina «arraunak zeozer bereziagoa du». Itsasoan nahiz mendian, «momentu on asko» izan ditu kirolarekin, baina baita txarrak ere; «lasterketa bat bukatu gabe utzi behar izan nuenean izan zen txarrena».

### Marea Urdinaren parte

Marea Urdina, autismoa eza-gutarazteko lagun talde baten ekimen gisa hasi zena, «gaur egun gizarte inklusibo baten alde lan egiten duen elkarte» bihurtu da. «Gipuzkoa osoa zeharkatzen zuen itsas zeharkaldi batean» ezagutu zuen aresoarrak elkarte, eta geroztik hainbatetan ikusi dugu bere banderarekin mendi tontorretan.

Elkatea «garrantzitsua» dela uste du, «gizartean autismoari buzurko informazio falta handia dagoelako. Autismoa duen haur batekin ez da ezer berezirik egin behar, lasai hurbildu, hitz egin eta jolastu, autismorik ez duen batekin egingo zenukeen bezala».

Orainean bizi da Baraibar, etorriko denean pentsatu gabe; «etorkizuna? egunerokorekin nahiko lan [irriz]».

**«EGINDAKOAREN  
EMAITZAK IKUSITA  
OSO GUSTURA  
NAGO»**

**«EGUNEAN  
EGUNEROKOA  
EGITEAREKIN  
KONFORME NAGO»**

# ZERBITZUAK

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### SALGAI



**ARANTZA.** Zumarrendi baserria salgai. Bidea du etxe atariraino, baita ura eta argia ere. ☎606 96 02 37.

**BORTZIRIAK.** Borda salgai. Deitu gaez. ☎647 58 81 63.

#### KONPARTITUAK

**DONOSTIA.** Ikasleen pisu batean gela bat errentan emateko apirilean, maiatzean eta ekainean. Deitu konpromisorik gabe. ☎617 56 93 46.

#### GARAJEAK/LOKALAK

##### ERRENTAN EMATEKO

**BERA.** Bidasoa karrikan garajea marra errentan emateko. ☎680 54 98 08.

**DONEZTEBE.** Zazpigerutze inguruan bi logelako pisua errentan emateko. ☎661 90 50 09.

#### LANA

##### ESKAINITZAK

**ORNOZ-MUGAIRI.** Urgain jatetxean bi langile behar dituzte, zerbitzaria eta sukalde laguntzailea. Deitu edo bidali curriculumak [reservas@hotelurgain.com](mailto:reservas@hotelurgain.com). ☎637 71 53 84.

**BERA.** Errekalde ostatuan zerbitzaria behar dute ortziraletan, larunbatetan eta igandetan lan egiteko. [errekaldeostatua@hotmail.com](mailto:errekaldeostatua@hotmail.com).

**BERA.** Zalain jatetxean zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dituzte. ☎617 72 34 75.

**LARHUN.** Larun Gain bentan, Aste Santutik aitzinera lanerako bi zerbitzari behar dituzte. Beharrezkoa frantsesez pixka bat jakitea. ☎605 21 00 55.

**DANTXARINEA.** Mikelenborda jatetxean langileak behar dituzte. Bat egun osoz aritzeko eta bertzea asteburuetarako. ☎690 38 81 34.

**SUNBILLA.** Aritzigain kanpinean sukaldaria eta zerbitzaria behar dituzte. ☎948 45 05 40.

**ETXALAR.** Haurrak zaintzeko pertsona gazte euskaldun bila. Egun erdiko lana, astelehenetik ortzirale-rra arratsaldez. Gida baimena eta autoa beharrezkoak dira. Interesatuek idatzi Whatsapez. ☎687 31 85 23 / 609 57 58 14.

### IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



[www.erran.eus](http://www.erran.eus)



744 48 43 61



[info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

**DONEZTEBE.** Titi ostatuan langilea behar dute egun osoan sukaldean aritzeko. Astean bi besta egun izanen ditu, horietako bat igandea. Interesatuek deitu edo ostatura agertu. ☎948 45 02 71.

**LESAKA**n irekiko duten hortz klinika batean administrazio lanetan formakuntza eta esperientzia duen langile baten bila ari dira. Hasiera batean lanaldi erdirako, etorkizunean lanaldi osoan aritzeko asmoarekin. Bidali curriculumak: [ortodonciamar-ke@gmail.com](mailto:ortodonciamar-ke@gmail.com). ☎638 95 64 42.

**BERA.** Ansonea ostatu-jatetxean bi zerbitzari behar dituzte ortziraletan, larunbatetan eta igandetan lan egiteko. ☎649 33 77 23.

#### ESKARIAK

Emakume batek interna lan egin nahi luke. ☎612 50 40 27.

#### DENETARIK


##### SALGAI



Etxeko **su egurra** salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanez dizugu egurra. ☎629 45 14 26.




**Pago egurra** salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. Informazio gehiagorendako deitu konpromisorik gabe. ☎690 08 56 65.



**Egurrezko ontzitegi lakatua** (2,08 metroko altuera x 1,60 metroko zabalera), **egurrezko mahai lakatua** (1,20 metro, 1,60 metrora arte handitzen dena) eta egurrezko lau **aulki** lakatu tapizatuak salgai. ☎610 38 58 67.



**Sofa**, relax besaulkia, belarridun besaulkia, oin-aulkia, egurrezko bi mahai (bat lakatu zuria eta bertzea bernizata) eta alfombra salgai. Dena egoera onean. Dena batera edo banaka erosteko aukera. ☎610 38 58 67.



**Gereziko armairua** salgai. 2,90 metroko zabalera. 200 euro. ☎616 38 28 49.



**Haritzeko sukaldeko bankua** salgai. 2,10 x 1,50 metro. 150 euron. ☎616 38 28 49.



### Diseinu grafikoan, digitalean eta komunikazioan aritzeko teknikaria

#### Zer eskainiko da:

- Berehala lanean hastea.
- Diziplina aritzeko lantalde euskaldun eta dinamiko batean aritzea.
- Lanaldi osoa eta sei hilabeteko kontratua, luzagarria eta mugagabea bihurtzeko aukerarekin.

#### Zer eskatuko da:

- Titulua goi-mailako zikloan.
- Gidatzeko baimena.
- Euskara-maila altua, ahal dela EGA edo baliokidea.

#### Baloratuko da:

- Esperientzia izatea hauetako alorren batean edo batzuetan:
  - Diseinu grafikoan: *Brandinga* eta markaren diseinua, papereko aplikazioak eta diseinu editoriala.
  - Web orrien diseinua, mugikorretako aplikazioen diseinua, sare sozialak...
  - Bideoen grabazioa, edizioa eta animazioa.
- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna izatea.

**Bidali zure curriculum vitae eta portfolioa helbide honetara:** [kulturkari@ttipi.eus](mailto:kulturkari@ttipi.eus) helbidera.




## BERAKO UDALA

### TOKIKO EHIZA BARRUTIA ERATZEKO PROIEKTUA

Berako Udalak tokiko ehiza barrutia eratzeko proiektua sustatu du, Nafarroako ehizari eta arrantzari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legean xedatutakoa betez. Argitara ematen da espedientea udal bulegoetan egonen dela jendaurrean, hamabost egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu (2022ko otsailaren 25ean argitaratu da) eta biharamunetik hasita, barrutian sartu beharreko lurren jabeek aukera izan dezaten lurrak barruti horretan sartu nahi ez dituztela berariaz adierazteko.

Barrutian sartu beharreko mugapea: Bera.

Bera, 2022-02-25  
ALKATEA, Aitor Elexpuru Egaña



**Haritzeko armairua** (3 metroko zabalera eta 2,5 metroko altuera) eta **ohatzea** (1,50m x 1,80m) salgai. 600 eurotan. ☎616 38 28 49.



**Aulkiak** (15 eurotan), **mahaia** (metro bat x metro bat, 40 eurotan) eta **mahaia** (1,2m x metro bat, 50 eurotan) salgai. ☎667 34 14 75.

### MOTORRAK

#### SALGAI



**Ford Fiesta** salgai. 2017koa. 36.500 km. Egoera bikainean, berria bezala. 8.500 eurotan. ☎647 93 19 41.

#### EROSI

**Citroen Berlingo** autoa erosi nahi dute, 2 ate korredera, 5 atekoa, 110 cv, diesela. 2020tik aitzinerakoa. ☎605 24 30 57.

### ANIMALIAK

#### SALGAI




**GOIZUETA.** Collie eta doberman nahasketako txakurkumeak salgai 150 eurotan. Baserrian hazitakoak. Interesatuak idatzi Whatsapp bidez. ☎636 08 98 84.

**OIZ.** Bi urteko ahari mutur gorria salgai. ☎606 01 93 37.

#### OPARITZEKO



**ETXALAR.** 6 zakurkume mestizo oparitzeko. ☎686 67 31 05.



Lau hilabeteko collie mestizo **zakurkume arra oparitzeko.** ☎637 71 53 83.

## URTEBETETZEAK



Gazteluko **Maidar Narbarte** eta Goizuetako **Beñat Narbarte**k otsailaren 28an eta marxoaren 6an 4 eta 10 urte bete dituzte. Zorionak denen partez. Muxuk.




Zorionak!!! **Iradi Arteaga Andresenak** marxoaren 1ean 6 urte bete ditu. Mila muxu eta besarkada gure eskalatazailarendako!



Arantzako **Alazne Baleztena Goñik** 10 urte beteko ditu marxoaren 14an. Zorionak familia guziaren partez. Muxu bat!



Elizondoko **Urko Muruaga Elizegik** 7 urte bete ditu otsailaren 25ean. Aunitz urtez **Urkotto!** 7 muxu potolo familia guziaren partez.



Elizondoko **Eneko Ormart Larratxeak** 3 urte bete ditu otsailaren 28an. Zorionak eta aunitz urtez!! Muxu potolo-potolo bat familia guziaren partez!!



Anizko **Eihartze Maritorea Azkarete** marxoaren 17an urte bat beteko du. Aunitz urtez lehengusu-lehengusina guzien partez. Muxu haaundi bat.



Aunitz urtez hirukote! **Aitor, Joxema** eta **Joxhek** urteak beteko dituzte marxoaren 16an eta 18an. Ongi ospatu zuen egunak!



## Aunitz urtez!

Zoriondu lagunak eta senitartekoak!

**Internetez** <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.

**Bulegoan eta postaz** <sup>T</sup>TIPI-<sup>T</sup>TAPAREN bulegora edo bidali argazkia eta testua gutun-azal

batean: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA.

**Whatsappez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

**Ordaintzeko:** Bulegoan, dirutan (5 edo 10 €) edo [ERRAN.EUS](http://ERRAN.EUS)en bitartez.

## SORTZEAK

• **Iraia Mindegia Mortalena**, Arraiozkoa, otsailaren 13an.



URTEURRENA

**Zuhaitz  
BALEZTENA AGIRRE**

Donezteben, 2019ko martxoaren 11n  
**III. urteurrena**

Zuhaitz, gure seme maitagarria baloreak erakusteko mundura etorria zuri eskertzeko dugu ikaragarria egunero sentitzen dugu zure presentzia oraindik gurekin zaudela, hori da egia!

ZURE AMA ETA ATTE



OROIGARRIA

**Junkal  
ITURRIA IPARRAGIRRE**

Arantzan, 2022ko otsailaren 12an, 52 urte zituela

Joan zaigu etxeko lorea maitasun eta alaitasunez asean. Irifar bat beti zenuen guretzat gordea, emanaz indarra ta adorea. Jarraituko dugu zuk utzitako bidea, nahiz utzi sekulako hutsunea. Larrainekoborda gelditu da zuk ereindako lorez betea.

ZURE FAMILIA



URTEURRENA

**Zuhaitz  
BALEZTENA AGIRRE**

Donezteben, 2019ko martxoaren 11n  
**III. urteurrena**

Maite zaituztenen begi bustietan isla izanen duzu zuhaitz guztietan.

ERATSUN ETA SUNBILLAKO FAMILIAK



OROIGARRIA

**Mikel  
ORGANBIDE ELIZAGOIEN**

Arraiozen, 2022ko otsailaren 15ean,  
21 urte zituela

Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.

LEGASAKO LANKIDEAK



OROIGARRIA

**Begoña  
SAN JULIAN VICENTE**

Lesakan, 2022ko otsailaren 22an

  
LESAKAKO  
UDALA

OROIGARRIA

**Mikel  
ORGANBIDE ELIZAGOIEN**

Arraiozen, 2022ko otsailaren 15ean,  
21 urte zituela

Familiari eman diozu irria eta algara Laxkanberriko bordan presente dago zure begirada nahiz joan zaren sentitzen dugu hurbil zure besarkada gure hitz eta memorietan betiko egonen zara Baztango mendi eta txokotan berriz elkartuko gara.

ZURE FAMILIA



**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

 **948 63 74 04 / 948 19 70 70**  
**www.tanatoriosirache.es**

  
**IZARRA**  
HEMEN, ZURE ONDOAN  
AQUI, A TU LADO

Gure lurra,  
gure jendea,  
gure sustraiak

TANATORIOAK  
• ELIZONDO • BERA • DONEZTEBE  
• ARANTZA • IGANTZI

 24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

**948 05 90 90** **www.izarratanatorio.com**





OROIGARRIA

## Kristina SARALEGI ARRIBILLAGA

Leitzan hil zen otsailaren 25ean,  
47 urte zituela

Hara!

Ura, lurra, belarra, harri batzuk...

Begira!

Non zaude?

Leku eder batean...

Non zaude?

Gure bihotzetan Kris!

ZURE KUADRILLA

OROIGARRIA

## Kristina SARALEGI ARRIBILLAGA

Arro baserrikoa

Emakume baserritar  
erreferente garrantzitsua.  
Lurrak goxo har zaitzala.



OROIGARRIA

## Begoña SAN JULIAN VICENTE

Lesakan, 2022ko otsailaren 21ean,  
62 urte zituela



Alaia ta atsegina,  
langilea eta fina,  
barru-barruan sartuta zenun  
laguntzeko grina.  
Zakozarri maitemina,  
lan aunitz duzu egina,  
bihotz xokoan betiko zaude  
atzendu ezina.

PYC-EKO JOXE MARIEN LANKIDEAK ETA ZURE LAGUNAK



BAZTAN  
BIDASOA

Ehorzketa Zerbitzuak

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA  
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU  
365 EGUN

948 48 95 50  
info@funerariabaztanbidaso.com

Betiko taldea zu laguntzeka

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79  
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian  
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3  
web: [funerariabaztanbidaso.com](http://funerariabaztanbidaso.com)

## HILBERRIAK

- **Mikel Organbide Elizagoien**, Arraiozen, otsailaren 15ean, 21 urte zituela
- **Cristina Arizmendi Larriu**, Elizondokoa, otsailaren 17an, 61 urte zituela.
- **Eugenio Almandoz Mitxelena**, Lesakakoa, otsailaren 17an, 78 urte zituela. r
- **Jesus Martiarena Bergara**, Berakoa, otsailaren 19an, 89 urte zituela.
- **Bernardo Aleman Zabaleta**, Leitzakoa, otsailaren 17an, 67 urte zituela.
- **Maria Belen Agara Maritorea**, Lesakakoa, otsailaren 20an, 93 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Jesus Azkarate Zabaleta**, Leitzakoa, otsailaren 22an, 92 urte zituela.
- **Begoña San Julian Vicente**, Lesakakoa, otsailaren 21ean, 62 urte zituela.
- **Isabel Ramos Santos**, Berakoa, otsailaren 23an, 72 urte zituela.
- **Aurora Telletxea Goikoetxea**, Ezkurrakoa, otsailaren 24an, 65 urte zituela.
- **Asuncion Etxebere Inda**, Amaiurkoa, otsailaren 24an, 97 urte zituela.
- **Pedro Zenoz Txurio**, Elizondokoa, otsailaren 24an.
- **Kristina Saralegi Arribillaga**, Leitzakoa, otsailaren 25ean, 47 urte zituela.
- **Miren Leiza Barrenetxea**, Leitzakoa, otsailaren 25ean, 93 urte zituela.
- **Juana Maria Bertiz Lastiri**, Sunbillakoa, otsailaren 26an, 72 urte zituela.
- **Ignacio Ansa Huarte**, Goizuetakoa, otsailaren 26an, 89 urte zituela.
- **Pakita Aierdi Baraibar**, Leitzakoa, otsailaren 27an, 93 urte zituela.

**ESKELAK JARTZEKO edo OROIGARRIAK EGITEKO:**  
948 63 54 58, 744 48 43 61 edo [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

► **Eskelak, Esker Onak** eta **Urteurrenak**

Ttipi-Ttapa aldizkarian + ERRAN.EUSen: 90 €  
Ttipi Txartela dutenek % 10eko deskontua.

► **Oroigarriak** egiten ditugu, pertsonalatuak, nahi den argazki eta testuekin prestatuak. Ikusi ereduak gure bulegoan (Koskontako bidea, 7-1 · 31770 LESAKA).




# PLAZAN BAZAN



## MEZUA


Konturatuko zinen bezala, orriotako jolasen gaiak liburu arras ezagunetatik hartuak dira. Hemen ezkutuan dagoena ere istorio ospetsu baten izenburua da, eta Mariasun Landak idatzia da. Jarri marrazki bakoitzaren azpian bere hizkia eta agertuko zaizu. Erabili irudi-alfabetoa.

## ALFABETOA



Bide batez, eman kolorea irudi hauei ere.

ETA NI EZ  
AL NAU INORK  
GOGOAN?



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiarri)





## ITZALA

Hona hemen Maripurtzil eta Pelloziri otsoz eta Txanogorritxoaz mozarrotuta, hurrenez hurren. Aurki ezazu itzal zuzena, eta bide batez, margo itzazu gure bi lagun bihurriak.



**INTERNETEN ERE BAI !**

<http://plazanbazan.eu/>



Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eu/kioskoa/soluzioak)



**Ttipi Txartela** rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus

[www.ttipitxartela.info](http://www.ttipitxartela.info)

**800** zenbakiko  
irabazleak >



**ZOZKETAK**

- Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
Jose Fermin Mendiberri Huarte | IRURITA
- Buatxabal - Poltsa bat**  
Fermína Goienetxe Lizarreta | ELGORRIAGA
- Arrate Estetika Zentroa - Produktuak**  
Pakita Zestau Iturrarte | LEITZA
- Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat**  
Mikel Etxeberria Aldaregia | IRUÑEA
- BKZ abentura - Sarrera bat**  
Begoña Berrueta Irigoien | BERA
- Galaxy Park - Bi sarrera**  
Maite Altxu Olaetxea | IGANTZI
- Baga-Biga - Bi disko**  
Patxi Pernaute Etxandi | OROÑOZ-MUGAIRI
- Baga-Biga - Bi disko**  
Joseba Soule Labaien | ARIZKUN

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)



Bi sarrera

**ONDDO TA PUNTO**  
[www.onddotapunto.com](http://www.onddotapunto.com)



Kamiseta bat

**MARTIKO**  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)



Lote bat

**KIMETZ**  
[www.kimetzbelardenda.com](http://www.kimetzbelardenda.com)



Saski bat

**Galaxy Park**  
[www.galaxypark.es](http://www.galaxypark.es)



Bi sarrera

**OKILLE TAILERRA**  
[okilletailerra.blogspot.com](http://okilletailerra.blogspot.com)



Eguzkilore bat

**LI  
BU  
RU  
AK**

- Anai-arrebak
- Besteak ez bezalakoa



- Ez naiz beldur!
- Zazpi gau

ibaizabal  
[www.ibaizabal.com](http://www.ibaizabal.com)

**LA  
GUN  
TZAI  
LEAK**



[www.ttarttalo.eus](http://www.ttarttalo.eus)



[www.giltxaurdi.eus](http://www.giltxaurdi.eus)